

ttüpi-ttapa

1996ko otsailak 8 • 175. zenbakia

Elkarrizketa

M^a Pilar PABOLLETA:
Josu Untsion, preso
beratarren ama



ZERRI HILTZEA
GAUZAK ALDATZEN ARI DIRA



Golf Variant



Golf



Vento

Auto familiarrak prezio familiarrak



SAMPI ARAGON

LEITZAKO ERREPIDEA • ☎ 450354 / 450759

D O N E Z T E B E



EZKALO

Jose Antonio Elizondo • API 129

INFORMAZIOA:

- ➔ Doneztebe ☎ 451518
- ➔ Iruña ☎ 234830
- ➔ Tfno. Mugikorra 908 - 777696

**Larunbat eta igandetan zabalik
ordua eskatuz gero**



DONEZTEBE. Aparango industrialdean azkeneko pabilioiak salgai. 150 m'koak, 59.000 pezetetan m' + IVA.



DONEZTEBE. ETXEBIZITZAK SALGAI, Bear-Zana ondoan. 3 logela • egongela • 2 bainu (hidromasai bainera) • sukaldea • trasteroa 11.250.000 pezetetatik hasita + IVA. Hasierako sarrera 1.500.000 Pta.

DATUAK.....

❖ M^a Pilar Pabolleta, Josu Untsion preso beratarren ama da.

❖ Senideak elkarteko kidea da; preso, errefuxiatu eta deportatuen senitartekoek osatzen duten elkartekoa kidea, alegia.

❖ Josu, bere semea, 1994ko ekainaren 3an gartzeleratu zuten, eta gaur egun, Alkala Mekon dago (Madril).

❖ Oraindik ez dakite zer leporatzen dioten eta noiz epaituko duten.

❖ M^a Pilar ilusionaturik dago 'Presoak Euskal Herrira' kanpainak emaitzak onak ekarriko dituelakoan.

TESTUA :
JOXEMANUEL IRIGOIEN

M^a Pilar PABOLLETA:

«Gure semea Madrilen dago preso eta badira aisa urrunago daudenak»

NOLA FUNTZIONATZEN DU SENIDEAK ELKARTEAK?

Bilerak egiten ditugu Bortzirietan, Iruñean... eta bilera hoietan gure seme-alabei buruz hitzegiten dugu, beraien egoeraz, beraien arazoetaz eta arazoa hoiek nola bideratu aztertzeko. Gauza jakina da presoen eskubideak ez direla errespetatzen, eta gure egin-beharra da hori karrikatzea eta eman behar diren pauso guztiak ematea legeak aitortzen dizkien eskubide hoiek bete daitezen. Kartzela guzietan ez da egoera berdina, eta egitan, badaude preso batzuk gogorki zigortuak. Ez da aiantzi behar Espainiako Konstituzioak presoak etxetik ahal den hurbilena egon behar dutela erraten duela, eta nere semea Madrilen dago, baina badaude Ceutan, Tenerifen, Cadiz-en... daudenak.

...ETA NOLA BALORATZEN DUZU HORI?

Nik ia 80 urte ditut eta haseran larunbatero joaten nintzen semea ikustera. Mila kilometro egiten nituen kristalaren gibelean ikusteko. Gaur egun buruzburukoetara joaten naiz bakarrik, hilabetean



behin. Horrela, semea besarkatu eta ordu terdiz lasaiago egoteko aukera dut. Beti urrunago trasladatuko ote duten kezkaekin nago. Joan den hilabetean ez nuen joaterik izan izugarritzko sukarrarekin nengoelako, eta disgustu haundia nuen. Gero eguraldia, karre-

tera... beldurrez nago 1.000 km. baitira egun berean egiteko.

ZER ESPERO DUZU ORAIN EGITEN ARI DEN KANPAINATIK?

'Presoak Euskal Herrira' ekartzea espero dut. Helburu horrekin antolatu dira mobilizazio guztiak. Ez dut pentsatu nahi ere, presoek daramaten gose grebak eta guk, Senideak-kok, Donostiako Buen Pastor-en egiten ari garenak ez dutela deustarako balioko. Aditua eta leitua nuen preso-

en egoerari buruz gauza pila, baina orain, hurbil hurbiletik bizi dut egoera hori, eta seguru egon, pentsatzen nuena baino gogorragoa dela.

HASIERATIK HONAT, ZERTAN ALDATU DA FAMILIAREN ANIMOA ETA JOSURENA?

Josuri animoak ez zaizkio falta. Berak gu animatzen gaitu, eta guk, bera animatzen dugu. Hasieratik etxekoak bere ondoan egon gara eta horrela segitzeko asmoa dugu.

» *Aditua eta leitua nuen presoen egoerari buruz gauza pila, baina orain, hurbil hurbiletik bizi dut egoera hori, eta seguru egon, pentsatzen nuena baino gogorragoa dela* »



ZERRI HILTZEA USADIOA URRITU BADA ERE, EZ ORDEA KONTSUMOA

ZERRIARI NABALA SARTU ETA ODOL-HUSTU ONDOTIK, ILEAK ERRETZEN ZAIZKIO. SEGIDAN LARRU AZALA GARBITUKO ZAIO ETA PUSKATU BAINO LEHEN, BARRENKIAK KENDU.

GUZI HORI BAINO LEHEN ETA HORTIK AUERRERA ERE, LAN UGARI GELDITZEN DA ORAINDIK, EGUN OSOA ERAMATEN DUTEN EGINBEHARRAK BURUTZEKO. ODOLKIAK EGIN, ZINGAR-AZPIKOAK ETA BERTZE HARAGI ZATIAK GAZITZEN JARRI, LUKAINAK EGIN...

TESTUA :

JOXEMANUEL IRIGOIEN

Bizimodu aldaerak, bertze hainbat gauza bezala, ukitu du zerria hiltzeko ohitura ere.

Gaur egun gure inguruko baserrietan hiltzen diren zerriak ez dira orain dela urte batzuk hiltzen zirenaren erdira hurbiltzen. Baserri gutiagotan gizentzen da zerririk, hiltzaile gutiago daude, eta gauzak horrela, harategian zerrikia erostea merkeagoa ez izan arren, bide horixe aukeratu dute hainbertzek zerri hiltzeak ematen duen lanatik eskapatzeagatik.

batzuk San Martin egunaren inguruan, bertze batzuk beranduago, zerri hiltzea negu parteko gertakizun berezietakoa izaten zen inguruko etxe gehienetan, ez hain aspaldi.

Geroztik, ordea, bizimodua aldatzen ari den neurrian urritzen ari da zerria hiltzeko ohitura ere. Gaur egun nagusiki baserrietan segitzen da horretan, eta karrikan apenas

ikus daiteke horrelakorik, batez ere herri haundienetan.

LAN HAUNDIAK

Zerria hil, garbitu eta zatitu ondotik, hainbertze lan dago oraindik egiteko. Odolkiak eta lukainak dira, seguraski, lan gehien ematen dutenak. Baterako zein besterako behar diren gaiak prestatzen, hertzeak betetzen baino denbora gehiago joaten da, eta guzi honen berri, aski ongi dakite etxeko emakumeek. Gero, zerriaren zati guziak aprobetxatzen di-



renez, zati desberdinak kontserban jartzearen prozesua etorriko da. Zingar azpikoak gazitzen eduki behar dira hiru bat astez, eta gero, gazitasuna kentzeko uretan pixka bat eduki ondotik, zintzilik jarriko dira idortzeko. Bi solomoak eta saiheskia, bakoitza bere aldetik edo txuleta moduan moztuta aprobetxatuko dira. Aukeraren arabera, hauek ere gazitzen edukiko dira egun batez, edo bertenaz, kongeladorean sartuko dira. Eta lukainak eta solomoak, azkenik, idortu ondotik oliotan jarriko dira, edo nahiago izanez gero, izoztu.

ZERRI HILTZAILAK

Etxeetan zerriak hiltzeko ohitura galtzen joan den neurri berean, hiltzaileak ere gutti-tu egin dira. Bera aldean, Alkaiagako Rosario Pikabeak berrogei urte daramazki lan hoietan. Rosariok erran digunez, «duela urte batzuk 5 zerri hiltzaile ibiltzen ginen etxez etxe Bera aldean, gaur bakarrik hiru». Rosario, errate baterako, Beran ez ezik Etxalarren ere badabil aurretan eta azkeneko urteotan 150 zerri inguru hiltzen omen ditu, etxeetan hiltzen dituen zekor, zaldiko eta behiak aparte. Gogoratzen duenez, «220 zerri hiltzera ailegatu zen orain dela urte batzuk». Orain urtetik urtera zerri gutiago hiltzen da etxeetan, baina

ERREZETA

Odolkiak

Osagaiak
180 kilo inguruko zerri batendako

- zerri odola • zerri burua • zerri gantza • zerri gurina • 6 kilo tipul • kilo erdi porru • 2 kilo arroz • espezie desberdinak (piper beltza, kanela, anisa...)
- baratxuriak • piperminak • gatza •

Prestatzeko manera

Burua egosi eta haragia hezurretatik bereizi. Zerri gantza txikitu eta urtu gantxiorrak egiteko. Zerri gurinan tipul eta porruak egiten jarri, bakoitza bere aldetik. Bertze ontzi batean arroza egosi.



Jose Luis
BERRARA

Berako
Harakina
'Okane'

Lan guzi hoiek eginak ditugunean, odolari arroza eta gustoko ditugun espeziak nahasiko dizkiogu. Segidan zerri burua xehe-xehe egina eta gantxiorrak ere gehituko dizkiogu. Osagai guzi hauek ongi nahasi eta hertzeak bete.

Odolkiak ordu erdi batez egosi behar dira 100º gradu ingurutan. Kontu izan urak ez dezalabor-bor egin.

bistan denez, horrek ez du erran nahi zerriki gutiago jaten denik. Ikus dezagun zer dioten harakinek:

HOGEI XOLOMOKO ZERRIAK

Harakinek diotenez, azken hogeitau urteotan nabaritu da zerrikiaren kontsumoak gorra egin duela. Idea horretakoa da, esate baterako, Jose Ignacio Arzallus, Leitzako harakina. Berak azaldu di-

gunez, harategirako ez dute zerririk hiltzen, zerriaren pieza guziak ez baitute ateara berdina izaten. «Hogei xolomoko xerriak beharko genituzke» dio Jose Ignaciok, horixe baita salida gehien duen pieza. «Negu partean txerri patak ere ongi saltzen dira, baina badira beste pieza batzuk ateara zailagoa izaten dutenak». Hortaz, zerria piezaka erostea da beraiek egiten dutena.

ETXEKO BESTA IZATETIK KARRIKAKO BESTA IZATERA

Bizimodu aldaerek zerri hiltzearen jatorrizko izaera ere aldatzen hasi dute, eta lehen gauza arrunta zena, gauregun kasu batzutan bederen, gertakizun berezia bezala hasi da agertzen. Aipatzen ari duguna ilustratzeko hona hemen pare bat adibide: duela aste batzuk Arantzako 'Zahar Txoko'koek besta antolatu zuten zerri hiltzearen inguruan «lehen baserrietan egun horretan egiten zena berreskuratzen». Martin Legarrak azaldu digunez, egun osoko besta egin zuten aitzaki horrekin. Argi hastean zerria hil, gosaltzeko zerri-gibela, bazkaria lehengo estilora, eta arratsean afaria eguerdian sobratutakoarekin. Berrogeita hamar lagunetik goiti elkartziren gertakizun horretara, eta besta borobiltzeko, Salvador Madariaga eta Josetxo Ihantzi bertsolariak eta Martikorena abeslaria eurekin izan zituzten. Kontserban jarritakoa Zahar Txoko elkartearen aprobetxatuko dute urte honetan. Berako Agerra Mendi Taldekoek ere 275 kiloko zerria hil zuten hiltzearen 20an, eta lan guziak tradizioak agintzen duen modura egin ondorengo, elkartean probetxu eder-rra aterako diote odolki, lukainka, azpizun eta zingar azpikoei. ■

GORDAILUA: NA-1324/85
 KRANKEO ITUNDUA: 34/79
 TIRADA: 6.200 ALE

ARATZAILA: TTIPI-TTAPA KE
 ERRIKO ETXKO PLAZA, 1
 31780 BERA
 TFNOA: 63 11 88
 FAXA: 63 12 91

ndaria: Joxemanuel Iri-
 Publizitatea: Miren Kar-
 Colosa. Erredakzioa: Aitor
 na, Joxemanuel Irigoien.
 nistrazioa: Amaia Goia.
 akzio taldea: Pello Ape-
 a, Juainas Paul, Kristina
 , Bittori Telletxea.
 maileak: Joseba Azpiroz,
 an Arozena, Juana Mari
 , Ainhoa Mutuberria, Iban
 Txema Aldabe, Pello Etxe-
 xema Urroz, Patxi Otxan-
 , Ixabel Maia, Josune Etxe-
 Pablo Mendiburu, Joseba
 ide, Alizia Olaizola, Margari
 ike, Koro Irazoki, Mixel
 diain, Jacqueline, Elixabet
 Garbiñe Maiz, Oskar
 rena, Alberto Sansiñena,
 Apezetxea, Aitor Arozena,
 a Boan.

oratzailak: EHNE Nafa-
 txi Lasa, Mikel Bezunar-
 oxe Javier Etxeberria,
 a Zabala...

ategia: Graficas Ona.
 apak ez du bere gain har-
 rrigorrez, aldizkarian adie-
 rranen eta eritzien eran-
 unik.

nde Laguntzaileak: Bera,
 Goizueta, Areso, Baztan,
 ubi, Zugarramurdi eta
 o udalak, Bortzirietako
 ara Mankomunitatea,
 ekako Zerbitzu Mankomu-
 , Zugarramurdiko Akelarre
 ea...



zkari honek Nafarroako
 rnuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNeko GAIA

Gazteak eta etxebizitza

**Etxebizitzak:
 turistentzat bai
 eta bertakoentzat ez**



Garbiñe LEITZA
 Piano Irakaslea, Iñuren

Herrian bizitze-
 ra gelditu nahi
 dugunok, etxe
 bat lortu nahirik hastean, oz-
 topo edo traba pila batekin aur-
 kitzen gara: etxe hutsak ez di-
 ra saldu nahi; alokatzeko mo-
 duan dauden gehienak turis-
 tentzat gorde nahi dira, eta bert-
 akoei ez zaizkigu alokatzen;
 prezioak sobera altuak dira;
 eta ondorioz, jende gazte aun-
 itz herritik kanpora joan be-
 harrean dago edo bertzenaz
 gurasoen etxean berandu arte
 bizi.

Etxe huts pila dago inguru guz-
 ti honetan, batzuk erdi eroriak,
 eta halere, etxe baten bila has-
 tean ez dago etxerik. Zergatik?
 Nere ustez arazo haundi ba-
 ten aitzinean gaude eta ez du-
 gu deus egiten moldatzeko.
 Honela segitu ezkerro, herri tti-
 ki hauek oraindik gehiago hus-
 tuko dira, eta bizitasuna gal-
 duko dute. Udalek indar egin
 beharko lukete Nafarroako
 Gobernuan, honek, zaharrak
 moldatzeko laguntza eman de-
 zan eta bertako gazteei (eta
 gazte ez direnei) alokatzeko
 edo saltzeko errextasunak
 emateko, eta ez bakarrik tu-
 rismoari begira.

**Etxebizitza propioa
 nahi bai,
 baina nola?**



Oihana ESKUDERO
 Irakaslea, Goizueta

Hainbat gazteri
 sortzen zaie le-
 henago edo be-
 randuago beren kabuz bizitze-
 ko nahia, independenteki au-
 rrera jarraitzeko nahia. Bakoi-
 tzaren izaeraren arabera iza-
 nen dira aldaketa edo pauso
 hori beharrezko ikusten dute-
 nak, derrigorrezkoa ere bai bes-
 te batzuk, eta zergatik ez, bai-
 ta pertsonalki gaisentituko di-
 renak ere erabaki hori aurrera
 eramateko, eta halaxe egin nahi
 luketenak. Bai, nahi luketenak
 diot, zeren, gaitasun hori ez da
 gaitasun pertsonalean soilik
 geratzen, arazorik haundiena
 gaitasun ekonomikoa baita.
 Etxebizitzen prezioak ikara-
 garri garestiak dira bai alo-
 katzerakoan eta bai erosteko.
 Leku guzietan arazo bera da-
 go, baina ni Goizuetakoa iza-
 nik, esan dezaket herri txikie-
 tako hainbat etxebizitza hiri
 haundietakoen prezio-mailan
 daudela. Hau gutxi balitz, he-
 rrietako lan eskaintza baxuak
 ikusirik, kanpora mugitu be-
 harra du gazteak lanera (ara-
 zoa eta aldiberean gastua).
 Gauza zera da, etxebizitza he-
 rrian hartuta ez lukeela gastu
 makala izanen gazte horrek.

**Dirua edota gogoaren
 arabera: alokatu,
 erosi edo egin**



Lander SEIN
 Langileak, Igantzi

Gazteok ama-
 ren magaletik
 ateratzeko era-
 bakia hartu ondotik hiru bi-
 de aurkitzen ditugu:

•**Etxebizitza alokatu:** nere us-
 tez behin-behineko kontua
 da, urte guttitan luzatzen
 ahal dena. Izan ere, bizitza
 guzia ematen ahal baitugu
 alokairua ordaintzen, azke-
 nean diru mordoa utzi eta
 etxe propiorik gabe egoteko.

•**Etxebizitza erosi:** hauekin
 normalean bi arazo sortzen
 zaizkigu. Batetik gustoko
 dugun etxea ez zaio gure sa-
 kelari egokitzen eta bertze-
 tik, egokitzen zaiona ez du-
 gu gustoko.

•**Etxebizitza egin:** hiru bideo-
 tatik hauxe da, seguraski, al-
 dapsuena. Honen abantaila
 zera da, etxea nahi bezala
 antolatu eta egiten ahal dela.
 Dudarik gabe 3 bideetatik
 bat aukeratzeko faktore au-
 nitz sartzen dira. Inportante-
 na dirua, baita norberak
 gaiari ematen dion garran-
 tzia ere. Eta bi faktore hauek
 elkartuta, ikusi behar prest
 gauden bizitzaren zati bat
 hipotekatzen gustoko etxe-
 bizitza lortzeagatik.

**ARTEKARI
 TALDEA**

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.
 • Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.
 Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

IRUÑEA:

• Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40
 Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratatutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

BOTA BERTSOA

IRAKURLEAK MINTZO



Euskal presoen egoera kartzeletan

Estitxu AROZENA

Doinua: Zeberioarena

*Estrategien kaltea
egoera jasatea
espertzea gehi kilometroak
loturak haustea
hobe bide hau moztea
dispertsioa uztea
zigor bikoitzak lortuko baitu
amorrua bikoiztea.*

*Edonor juzgatzerako
jartzen dira traba franko
dispertsioa ilegala da
edozeinentzako
azkenik erran beharko
ez al da arrazoi nahiko
Euskal presoak Euskal Herrira
euskaldunak direlako.*

N-121-A: lehentasuneko lana

Dela gutxi egunkariak zabalduak berriaren arabera Bidasoaldeko biztanleek (hots Bortziritakoak eta Malerrekaakoak) Mugairitik Behobiara doan N-121-A errepidea hobetzeko aukera galdu dezakegu Nafar Gobernuak aurrekontua eskasa zelako. Eta dirudienez baztandarrek suertehiagi izanen dute, N-121-B errepidea konponduko diete eta. Asko pozten naiz beraiegatik Nafarroako iparraldean bizi garenok ez baitugu errepide egokiak eta guztiak hobetzeko premian daude, bai nazionalak baita komarkalak ere.

Baina bertzaldetik, errepide-plan bat diseinatzerakoan lehentasun logiko batzuen kontutan eukitzea behar-beharrezkoa da. Nere ustez, eta Nafar Gobernuak eginiko ikerketaren arabera, N-121-A errepidetik Baztango errepidetik baino bizpauru bidertrafiko gehiago dabil eta batez ere ibilgailu astuna; N-121-Aren egoera askoz larriagoa da; Bortziriarak eta Malerrekan industri gehiago dago; Zozaia-Narbarre proiektuaren idazlanak aurrera doaz; Larrakaitz tunelaren proiektua dela sei urte egin dago eta, batez ere,

Bidasoaldea Nafarroatik Europara joateko bide naturala da.

Alfredo Zugarramurdi Doneztebeko zinegotziak aurkezturiko mozioarekin bat nator, eta ez dut EAK emandako ezezo botoa ulertzen, guzti honetaz hitz egiten ari dela jakin arren ez baitu gure errepidea hobetzeko mozioa onartzen. Bortziritako EAKideek gauza bera pentsatzen dute? Bere ezezo botoa argi eta garbi azal dezaten espero dut, eta bakoitzaren interes partikularrak alde batera utzirik zonaldean elkar-lanean airtuko garelakoan.

BIDAXKA. LESAKA
ENA: 72.697.875



Eskubideak eta pakea

Indibidualak zein kolektiboak eskubideak horixe dira: Eskubideak, pertsona eta Herriei dagozkienak, beraz, Errespetatu beharrekoak. Baina bada gauza bat arrotz itsusia, hau da, Haundiak Txikiaren eskubideak zapaltzea; eta hor hasten da pakea izorratzen. Autodeterminazioa eskubide bat da, Euskal Herriari dagozkiona. Espainiako Konstituzioak, ordea, ez du kontutan hartzen; beretzat España 'indisoluble' da eta Ejer-

tzitza 'garante de la Unidad'. Pakea orain, zergatik ez? Espainiak eta Frantziak lehengo lepotik burua, indarrez kendutako eskubidea onartu nahi ez digutela. Horra hor oztopo nagusia eta ahantzi ezin dena. Pakebidea Autodeterminazioarena ere bada. Zapasaltorik eman ez dezagun pauso ziur eta motzak eman beharrean gaude. Pausoak 'aurrezten' edo luzatzen ibiliz gero, azkenean gibelera goaz, indarra, ilusioa eta esperantza galtzen. Gu hain txikiak izanik, ezin gara horrelako 'alegriekin' ibili. Zuhur jokatu behar dugu. Hau erranda, txalo eta Animoak Bidasoa aldeko herriarrei eta Berako Udalari gure eta gure familien eskubideak errespetatuak izatea eskatzeagatik. Legea betetzea bertzerik ez da eskatzen. Belarri Tiraldi bat Lesakako PNVri, nahiago baitu gu ahalik eta urrunen edukitzea, preso eta 'poteatuak'. Gartzelan, bide osoa egiteko prest gaituzue. Horregatik gauzkate preso eta urrun, horregatik gaude gose greban, eta horregatik ez du etsitzeko asmorik Euskal Herriari dagozkion eskubideak errespetarazi arte.

MONTERROSOKO GARTZELAN
JOXELU EXEBERRIA LEKUONA
ENA: 72.668.787



Albino
OSTATUA

LESAKA



ZUBIRIA
MINDEGI

- Etxeak apaintzeko landareak
- Baso landareak
- Bertako frutondoak

ARRAIOZ • NARBARTE

Tfnoak: 452032 (bulegoan) • 592034 (etxean)

Faxa: 581274

GAZTELU
ITURGINTZA

KALEFAKZIOA

Elgoien 32
Tfnoa: 51 00 86 •
LEITZA

PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



Egunkaria 96-II-2

«Harri errektangularrarekin ongi moldatzen naiz, baina beste harriekin okerxeago. Ni neurean naiz onena, baina hortik ateratzen banauzu, eta indarrezko joko asko daude, ez daukat zereginik»

Mikel SARAILEGI
Leitzako Harrijasotzailea

Egunkaria 96-II-2

«Ez dut profesionaletan debutatzeko prisaarik»

Asier OLAIZOLA
Goizuetako Pilotaria
Diario de Noticias 96-II-1

◆ **Amaiurtarrak zintzoak eta leialak?**

❖ Kantuak hori dio eta nik horrela uste dut.

◆ **Eta baztandarrak?**

❖ Ez gara lehen bezain ttuku-ttuku.

◆ **Musika talde bat?**

❖ Negu Gorriak.

◆ **Zer da patxaka?**

❖ Baztanen berreskuratu den aspaldiko likorea.

◆ **Noiz moztuko zenuke bizarra?**

❖ Buruan ilea ateratzean.

◆ **Claudia Schiffer ala Naomi Campbell?**

❖ Claudia Schifferen antzeko euskaldun bat.

◆ **Argentinara itzultzekotan, zer eramango zenuke?**

❖ Zatoa eta boneta.

◆ **Sagardotegiak edo Argentinako jatetxeak?**

❖ Han haragi ona dago baina sagardotegiak nahiago ditut.

◆ **Bordatxora, bestara edo kantu txapelketan abestera?**

❖ Bestara, baina abestera ere joanen nintzateke.

◆ **Bestondoaren aurkako sendagai bat?**

❖ C bitamina.

◆ **Nekazal aseguruak ba al dute etorkizunik?**

❖ Bai, gaur egun dena aseguratzeko bait da.



Bitor JAUREGI
Amaiurkoa.
Aseguru saltzailea.

Errekalde ostatua

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630259 - BERA

DROGUERIA MOLINERO



• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •

Barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoak

Eztegara 19 • ☎ 63 02 40
BERA



**BORTZIRIETAKO GIZARTE ZERBITZUEN ETA
HIRI HONDAKINEN MANKOMUNITATEAK
Administrari Laguntzailearen ordezkia
kontratatzeko deialdia**

Zer eskaintzen dugu?

• Kontratuaren iraupena: 5 hilabete eta erdi.

• Lansaria: D mailari dagokiona.

Zer eskatzen dugu?

• 18 urte beteak izatea.

• Lehen mailako Lanbide Heziketako titulua (Administrazio arloan) edo baliokidea arlo berean.

Non eta noiz aurkeztu eskaerak eta merituko?

• Tokia: Mankomunitatearen Idazkaritzan (Etxalarko Udaletxean).

• Eguna: Otsailaren 23a baino lehen (hau barne).

Oharra: Deialdiaren oinarriak zuen eskura daude mankomunitate hauetako Idazkaritzan.

Etxalar, 1996ko otsailaren 1a / Presidente, Miguel M^o IRIGOIEN

SEAT

Audi



GELTOKIAK, S.L.

***Aukerako
ibilgailuak***

**100 ibilgailu
baino gehiago**

- Mendiko autoak
- Turismoak
- Auto komertzialak

BERA (tunelaren ondoan) • ☎ 908.779356

Bera

Udal administrazioan euskara normaltzeko plana ez da onartu

HBk plangintza bere osotasunean onartu nahi bazuen ere, Herrialde eta EAK orain arte bezala segitzea erabaki zuten

KRISTINA BOAN

Joan den urtean udal ordenantzekin egin zen bezalaxe oraingoan udal administrazioan euskara normaltzeko plangintza ez zuen onartu udalbatzak, Herrialde eta EAKo zinegotzien kontrako botoekin eta HBkoen aldekoekin.

Alkateak Herrialde taldearen izenean erran zuenez, "euskara laguntzearen alde gaudela eta horregatik, orain arte bezala dena elebiduna egin beharko litzateke".

EAKo ordezkariak, bere aldetik, ordenantzen gaien inguruan Euskara Mankomunitateari aurkeztu zitzaion bidetik segitzen dutela adierazi zuen, hau da, "barne dokumentazioa euskaraz eta publikora ateratzen dena bi hizkuntzetan idaztea".

HBko bi zinegotziak plangintzaren alde azaldu ziren. Herriko Etxearen aldetik



Astlehenean Iñude eta Artzaian talde nagusia aterako da

Argazkia: Nafarroako Ihauteiak

Ortzegun Gizen eguneko 'Zingar arraultze'tik, Iñude eta Artzaia bitarte dena prest iñauteak ospatzeko

Otsailaren 10ean kaldereroen txanda izanen da, Hungariatik datozen ijito hauek zarata eta kantuz beteko baitute larunbateko arrats partea.

Iñauteak Ortzegun Gizen egunarekin se-

gituko dute. Otsailaren 15eko goizean, haurrak etxe ibiliko dira 'Zingar arraultze' kantatuz eta Iñude eta Artzaia ttikiak aterako dira.

Astlehenean berri, otsailaren 19an,

haundixeagoak izanen dira Iñude eta artzaiez moztortuak kanporat ateriko direnak. Ilunabar partean, moztorroak erakusteko aukera izanen da. Igandean, Blues Thorpes taldea izanen da Puyn.

euskararen presentzia indartzeko baldintzak paratu behar direla erran ondoren, "orain arte segitzen bada ez

gara aintzinera joanen" adierazi zuten. Herriko Etxeko lana oztopatzen ez badu euskarazko akta libu-

ru bat irekitzeko asmoa azaldu zuen alkateak. Bertzela, euskara teknikariak itzuli beharko luke, bere ustez.

ttipi-flash

Menopausiari

buruzko hitzaldiak burutzen ari dira Toki Onan Uxua emakume taldeak antolatuta. Hurrengoak hilaren 7 eta 14ean izanen dira, arratsko 7etan Cofes-Haizearen eskutik.

Frantxis Jorajuria

intsumitua urtarri-laren 20an atxilotu zuen guardia-zibilak eta Iruñeko kartzelera eraman.



ZALAIN
JATETXEA

EGUNeko MENUA ETA KARTA

Zalain Auzoa

63 11 06

BERA

Boda eta banketeak ematen dira

ALZURI

- Sukalde tresneria eta opariak
- Landare eta loreak

Tel.: 63 03 70 • BERA

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK

Altzate, 5 Tfnoa: 63 00 83 BERA

OKANE

HARATEGIA • URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA



BOAN
TALERRA

AUTO BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA

63 06 23 • BERA

Lesaka

Hainbat ekitaldi izanen dira aurtengo inauterietan

Arraultze-arraultze edo Zaku-zaharren ohiko irteerarekin batera, karrozen desfilea eta musika modernoa izanen dira

AITOR AROZENA

Ortzegun Gizeneko 'Arraultze arraultze, zingar arraultze, bat ez bada bertze' eskearekin hasiera emanen zaie inauteriei.

Igande arratsean zaku-zaharrak herrian barna ibiliko dira ohitura segituz. Lehendabiziko moxorroak, berriak, larunbat gauean ikusiko dira.

Astelehen eguerdian karrozen desfilea izanen da eta arratsean, Beti Gaztek antolatutako moxorro lehia-keta egingen da. Igande eta astelehen arratsean musika izanen da plazan. Atxaspi ostuan ere musika izanen da. Ortziralean, Gari, Hertzainak taldeko kantari-ohia, bere diskoa aurkeztu eta igandean *Maixa eta Itziar* taldekoak izanen dira.

Baserri auzoetako gazteek asteartera arte luzatuko dute besta giroa, Fraindarrak eta Goitarrak baserriz baserri ibiliko baitira.



Rodolfo Izal, Chiapasetik kanporaturako apeza nafarraren solasaldiak ikusmin handia sortu zuen joan den astean. Askapenak antolatutako zikloaren barrenean, Kontxi Errok Guatemalan eta Edurne Rekondo, Garbiñe Larralde eta Amaia Larralde El Salvadorren izandako esperientziaren berri ere eman zuten Arrano elkartearen diapositiba eta bideoen laguntzaz

Argazkia: Aitor AROZENA

Plenoan kontrakoa erabaki ondoren lehen udal akta euskaraz

Udal batzarreko akta lehen aldiz euskaraz jaso dute zinegotziek, batzarre berean PNVk kontrako jarrera azaldu bazuen ere.

Udal aktak elebidunak izatea eskatuz moxioa aurkeztu zuten HB

eta EAK. Alkateak, aktak bi hizkuntzetan idaztearen alde dagoela erran ondotik, "Euskara Mankomunitadako teknikariak bortz herrietako aktak euskaratzea edo gainerakoan, Lesakako

udalak bere euskara zerbitzu propioa osatzea" proposatu zuen.

HBko ordezkariak, "plenoak euskaraz egiten dira eta beraz, ez dago deus itzuli beharrik" erran zuen. Eako ordezkariaren ustez,

berri, "Etxalar, Arantzeta eta Igantzin akta elebidunak idazten dira eta ez dira euskara teknikariaren zerbitzuaz behartzen".

Eztabaidaren ondoren akta euskaraz plazaratu da, ustekabean.

ttipi-flash

Iñaki Fagoaga herriko preso politikoa gose greban dago urtarrilaren 29tik otsailaren 13ra. Hamabortz eguneko txanda honetan ari diren 103 presoak Euskal Herrian elkartzea eskatzen dute.

Patxi Zabaleta idazle leitzarrak *Ukoreka* eta *Badena dena* da bere azken bi nobelen aurkezpena egin zuen urtarrilaren 31n Matxinbeltzenea euskal txokotan.

KOXKILA OSTATUA

Zarandia, 4 - **LESAKA**

LESAKAN

GAIA Dietetika denda traspasatzen da. Edo lokaia, bere apal, mahai, etabar... Petroleozko berogailua ere bai, berri-berria. Eta generoa % 10eko deskontuarekin.

☎ 637410 • **LESAKA**

EROSLE

LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena

Frexkuena zugandik hurbilago

Bittiria, 67 - ☎ 637264

Etxalar

Presoenganako errespetua eskaera onetsi du Udalak

Senideak elkarteak eta Etxalarko HBk presentatu zuten mozioa

PELLO ETA ALBERTO

Presoei dagozkien oinarritzko eskubideak errespetatzea, presoak Euskal Herrira ekartzeari, zigorraren 3/4ak bete dituztenak eta eritasun larriak jotakoak baldintzapeko askatasunean uztea, horiek dira xeheki eskaerak. Estatu espainoleko legediak berak onartzen eta erakusten dituen eskubideak, hain zuzen.

Patinez ibiltzeko ikastaroa

Abenduan hasi eta borts hilabetez ariko dira haurrak patinez ibiltzeko ikasten. Altxata elkarteak antolatu eta 100.000 pezeta kostua duen ikastaroa, haurrek ere ordaindu behar dute, gisa honetara: Altxa-



Gero eta gutiago ikusten dugun gertaera eta ohitura, denboraz etxeetan urteko egun berezietakoa izaten zena

Argazkia: PELLO

tako sozio direnen haurrak 2.000 pezeta. Senide bat baino gehiago izanez gero, 1.500. Sozio ez direnen haurrak, berriz, 3.500 pezeta, eta, senide bat baino gehiago izanez gero, 3.000 pezeta. Bitak-

de ezberdinetan banatuak, 11etan batzuk eta 12etan bertzeak, 25 haur dira denetara parte hartzen dutenak.

Futbola ikasten

Asteazken arratsaldeetan klaserik ez de-

la eta, urte hauetan jostaketak eta kirolak landu dira. Aurten ere kirolatan zerbait irakasten aritzea pentsatu du Altxata elkarteak. Momentuz 30 bat haurrek izena eman dute, eta, eurek hala eskatu du-

telako, futbola izanen da aurtengo kirola. Jose Mari Arburua ariko da haurrekin, baina bertze laguntzailearen bat beharko du adin desberdineko taldeak antolatzeko.

Herriko ostatuan

'Laberintoaren barnean' filma botako dute hilaren 19an arratsaldeko 6etan. Otsailaren 9an berriz, 'Free Spirit Jazz Band' taldearekin afari-kontertua izanen da.

Larraburua elkartearen batzar nagusia

Inauteekin urteko Batzarra egiteko eguna ere ailegatu zaio Larraburua Elkarteari, Inauteetako igandean egiten baitu urtero urteko kontuak eman eta Junta berri, estatutoen arabera.

«USOA»

NEKAZARI KOOPERATIBA



Ganaduarentzat
pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14

ETXALAR

ORBELA

gimnasioa

Squash • muskulazioa • sauna

© 637950 • LESAKA



Albistur, 39-K • 627542 • LESAKA

bitxikeriak • opariak • eskulangintza



IRU BIDE
ERRETEGIA

Tfnoa: 637127
LESAKA



ORDOKI ALTZARIAK

Estilo guzietako mogleak

Kalitatea prezio egokian

35 urteko esperientzia zure zerbitzura

- Jangelak, tresilloak, gazteendako mogleak, auxiliarrak...
- Paretako armarioak, zure logelarako egokiak eta neurrirra eginak
- Kutxa, platero, eserleku, etabarretan aukera zabala.
- Moble zaharrak eta zaharberriak

ERAKUSKETAK: Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26

SALMENTAK: Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 637034 • LESAKA

Igantzi

Aste ondar honetan izanen dira aurtengo iñauteak

75 lagun bildu ziren Esperantzaren despedida bazkarian

OSKAR TXOPERENA

Hirutanhogeita hamabortz lagun bildu ziren Igantziko Guraso Elkartek Esperantza andereñoa despeditze-ko antolatutako bazkaria. Bertan, hainbat opari eman zitzaizkion, azken hogeitaz urte hauetan haurrekin egindako lana eskertzeko. Halere, lehenagorak hasia zen besta, haurrak mezara joateko etxera eske joan zitzaizkion txistulariekin. Herriko korallak abestutako mezan, katekesia ematen pasatutako orduengatik esker eman zion apezak. Ondotik, dantzariak eskeini zioten beren omenalditxoak, aurrerakia eta bertze zenbait dantzen bitartez.



Berriak idazterakoan ez dugu oraindik iñauterien antolatzaileen berri haundirik, baina urtero bezala, azken momentuan zer edo zer plantatuko da. Ea iaz bezain moztar politak ikusteko aukera dugun! Zahar Etxekoek ere larunbat honetarako prestatu dute iñaute-afaria. 45en bat bilduko omen dira bertan. 8an berriz, gimnasia egiten ari direnek berendua izanen dute Arantzan, bertan lan berean ari direnekin.

Argazkia: Oskar TXOPERENA

Bertso ikastaroa

Joan den astelehe-

nean hasi ziren bertso ikastaroak. Urteakautu arte Estitxu Aroze-

narekin bilduko dira 15 haurrak, bertso-gintzan lehen urratsak

emateko. Seitik zazpitarra izanen dute ordua. Ea bertsolariren bat ateratzen zaigan!

Haurren jantokiaren arazoa

Aintzina segitzen dute guraso, zinegotzi eta Biltokiko juntaren arteko bilerak, jantokiaren beharrea dau den eskolako haurren arazoa moldatu ahal izateko. Halere, bilerak egin arren, bakoitzak hasierako planteamenduarekin segitzen du momentuz eta aterabidea ez da batera hurbil ikusten. Dena den, aurtengoz, zenbait baldintzekin bada ere, Biltokin bazkaltzen segituko dute haurrek. Heldu den urtean izanen dira kontuak.

AHORRO-BERRI

janaridenda

Legia 4 • BERA

Ireki berria



EKAITZA kafetegia

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Plaza Berria, 13
T 948 - 62 75 47
LESAKA

Lagunekin
elkartzeko
toki egokia



LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura Orokorrak

Bera ☎ 630735
Irun ☎ (943) 622305



HERRIKO OSTATUA

Jatetxea

Lagun artean
goro-goro egoteko
leku egokia

☎ 635290
ETXALAR



KIROLAK ZELA

Altzate 6, ☎ 63 05 98
BERA

XATURETXEA



Tfnoa: 63 70 27 **LESAKA**

Arantza

Emakumeen afaria eta mozorroen eskearekin hasiko dira Iñauteak

Igandean, herri kirol jaialdi ikusgarria izanen da Lizaso eta Soroزابalekin Aterpen eginen den bertso bazkariaren aitzinetik

GARBINE ETA ELIXABET

Ortzegunean, otsailaren 8an, Primitibo osatuan gosalduz emanen zaie hasiera iñauteei eta ondotik Aientsa eta Aztilarrean auzoetan ibiliko dira mozorroak, Joakin akordeolariarekin. Emakumeen afaria ere izanen da gauez Burladan.

Ortiziralean mozorroak Bordalarrea eta Eguzkialdea barna ibiliko dira Joakinekin. Gauez Gregorio eta Joakinek karrikak alaituko dituzte mozorroekin batera eta dantzaldia gorapean.

Larunbatean mozorroak puxka-puxkan herrian barna ibiliko dira. Arratsaldeko 5etan haur mozorrotuen lehiaketa burutu-



Emakumeek afaria izanen dute ortzegunean Burladan

ko da eta gauez, gaur pasatzen diren mozorrotuak izanen da, Kristina eta Amaia taldearekin.

Igande goizean herri kirol proba mundialak ikusteko aukera izanen da. Lehenik, Donato eta Patxi Larre-

txea, lau mozorrotaren kontra arituko aizkol apostuan. Ondoren, mozorroek beraiei indarrak neurtuko dituzte proba konbinatu ikusgarri batzuetan. Bazkalaretik frontoian Lizaso eta Soro-

zabal bertsolariak ari tuko dira. 2etan herri bazkaria eta 1950, 51 eta 52an jaiotako kinto besta Aterpen, akordeolari eta bertsolariarekin. Arratseko 7,30etan iñauteei akabera emanen zaie.

Arkupekoen zerri hiltzea

Urtarrilaren 18an, Arkupeko elkarteak bazkideak egun berezia ospatu zuten. Lehen aldiz zerri hiltzea egin eta ondoren bazkaria eta afaria izan zuten. Bazkarian 50 lagunek parte hartu zuten bertan. Erramun Martikorena eta Amaia Zubiria kantari aritu ziren. Afaltzeko ere 20 lagun ba omen ziren.

Zuzaineako pinadia erre

Urtarrilaren 19ko arratsean Zuzaineako pinadia erre zen. Pinadia Eguzkialdean dago Etxetxuriaren gainean eta arriskurik haundiena hau erretzea zen. Halere, sua laister itzali zuten

LABE ZAR
© 631076 • BERA

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarna, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo-zgarbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz.
Termita eta Polillen kontrako tratamendua

BERA
DESINFECCIONES

© 63 01 55
BERA

Andregaiak eta amautxiak

Jantziak neurritan eginak
M^a Nieves • 943-627977 • IRUN
Euskaraz badakigu

LEGARRA

Legarrea, 9
© 63 70 30
LESAKA

IÑAUTERIAK
MOZORROAK SALGAI
7 eta 10 urteko gaztetxoentzat
1.990 pezetatan

Larunbata eta igande goizetan irekia



GRUPO



ZURICH

ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 — BERA — © 63 07 63

SAROB
okindegia



SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

Sunbilla

2.500 pertsona inguru hurbildu ziren iñauterietan parte hartzera

Langarra euskara taldearen bilerak, bestalde, Bustitz ostatuan egingen dira uztaila bitarte



Iberiako hegazkina Sunbillako zubia pasatzen eta mozorro ponpoxo horiekin ateratako koadrilla

Argazkiak: Amaia

IXABEL ETA JOSUNE

Penaz erran behar baldin bada ere, aurtengo iñauteriak ere pasatu dira. Urtetik urtera jende gehiago etorritzen dela jakina da, baina aurren, jendetza ikaragarria ibili da hiru egunetan. Jende gehiena, ordea, igandean ibi-

li zen, 2.500 pertsona hurbildu baitziren herrira karrozak eta mozorroak ikusteko go-
goekin. Etziren damutuak bueltatuko, hamabi karroza, zein baino zein ederragoa ikusi ahal izan baitzituzten: Ikatz plaza, Iberiako hegazkina edota Erdi Aroko gaztelua

agertzen zutenak hargitx originalak ziren, gehienak bezalaxe.

Frontoian prestatutako jaialdia ere ez zen gibelean gelditu eta ikaragarria izan zen: musika klasikoko orkestra bat eta Julio Iglesias fans eta guzti, izan baikenituen kiosko batean. Errifa-

ren zozketari dagokionean, zerria Betraunera joan zen eta bildotsa, berriz, Kooperatibara.

Langarra taldearen bilerak

Malerrekako Langarra euskara taldearen bilerak hemendik aitzinera, uztaila alde-

ra arte, Bustitz ostatuan egingen dira. Bilerak hilabetero lehenengo ortziraletan egingen dira, arratsaldeko 8etan.

Euskararen inguruko ekitaldiak eta bertzelako gauzak prestatzeko inportantea izaten ahal denez, euskaltzale guztiei zabalduak dira bilera hauek.

BEINTZAKO OSTATUA

Tfnoa: 45 00 14
BEINTZA-LABAIEN

SALDIASko zerrategia

Eraikuntzarako estrukturak eta enbalajeak

Zubizarra, ☎ 615108 eta 615044 • SALDIAS

ttipi-ttapa

6.200 harpidedun
21.000 irakurle



TELLETXEA MOBLEAK

Moble erakusketa haundia

- ☐ Edozein klase eta neurriko altzariak egiten ditugu.
- ☐ Haritz, gereziando, gaztainondo eta pinuzkoak.
- ☐ Armario enpotratuak, ate korredera edo normalakin

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - DONEZTEBE

Doneztebe

Jose Maria Lana medikuaren aldeko sinadura bilketa egin da

Osasunbideak bertze mediku bat izendatu nahi du, dirudienez euskalduna

TXEMA ALDABE

Otsailaren 22an Jose M^a Lana medikuak hiru urte beteko ditu herrian dagoela. Osasunbideak urteko kontratoen bidez berritu izan dio orain arte, baina hiru urte egin ondoren zuzenbidean lanpostua fijo egin behar da eta Osasunbideak bertze mediku bat izendatu nahi du, dirudienez euskalduna.

Orain dagoenaren lan onarekin jendea pozik dagoelako, erdara hutsean dauden karteltxoak banatu ziren herrian barna, bera hemen gelditzearen alde herritarren sinadurak eskatuz. 800 bat firma bildu ziren eta hilbertzaren 31n alkateak eraman zituen Osasunbidera eta EAK mozioa aurkeztuko du.

Foru dekretu baten bidez Donezteben hiru mediku euskaldun izan behar zutela onartu bazen ere, gauegun lau medikuetatik hiru erdaldunak dira.



Inauteak otsailaren 15, 16, 17 eta 18an

Otsailaren 15ean, ortzegunean, afari batekin emanen zaie hasiera aurtengo Doneztebeko inauteei. Biharamonean, ortziralean, baserri ibiliko dira puskak biltzen eta 17an, larunbatean, arratsaldean izanen da inauteetako ekitaldi ospetsuena, karroen eta moztroen desfilea, alegia.

Ospakizunei akabila igan-

dean emanen zaie bazkari batekin. Inauteak alaitzeko bes-tatan izan zen Korkor txaranga izanen da eta ilunabarrean dantzaldia izanen da elizatarian.

Mozorroak eta, aldi berean, gorputza prestatzea bertzerik ez da falta ongi pasatzeko.

Argazkiak: ZALDUA



Mendi irteera otsailaren 11n

Mendi irteera edo ateraldia antolatu du Erreka elkarteak otsailaren 11rako, iganderako, Mugairi-Arraiotz-Ziga-Mugairi izanen da oraingo honetan egin beharreko

ibilbidea.

Joan nahi duenak, otsailaren 8an, ortzegunean du azken eguna izena emateko. Aski du Titi ostatura joatea edo 450271 telefono-ora deitzea.

Errekaren Eguberrietako zozketa

Errekaren eguberrietan zozketatzen zuen zari eta sari ederra oraingoz ez du inork eskuratu, lehenbiziko zozketako zenbakia duena ez baita oraindik atera. Bigarren zoz-

ketan, 27.114 zenbakia egokitu zaio zaria. Zenbaki hau duenak lehenbaitlehen dei dezala 450271 edo 450140 telefonoetara, bertela saririk gabe geldituko baita.



Asteburuetan kontzertuak

Larunbata 10, 10,30etan: **KING MAFRUNDI**

Igandea 11, 8,30etan: **KARGOL'S eta**

SKUNK

Bokadilloak eta pintxoak

San Migel auzoa (Osasun Zentroaren ondoan) • 450991 • **DONEZTEBE**

MariCruz
LENTZERIA

Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - **DONEZTEBE**



SANTAMARIA
Jatetxea

Obrak irauten duten bitartean sarrera gibelesko aldetik.
Asteburuetan itxita dugu

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - **DONEZTEBE**

Malerreka

Ituren eta Zubietako iñauterietan sekulan baino jende gehiago ibili da

Aipagarriena, emakumeen arteko aizkol apostua Iturenen eta Felipe Gonzalez eta Jose M^a Aznarren parodia Zubietan

IBAN ETA AINHOA

Urtarrilaren 28an, iñauterien barneko ekitaldietan eguerdiko 1,30etan aizkol apostu ikusgarria izan zen Iturengo plazan. Bi emakume aritu ziren lehian, Lasaga auzoko Maika Ariztegi Lasaga eta Leitzako Kristina Saralegi. Sei enbor moztea zen lana eta leitzarrak 12 segunduko aldearekin irabazi zuen. Dena den, lehen aldia zen Maikak honelako proba baten parte hartzen zuela eta ongi moldatu zen.

Aurtengo iñauterietan giro ona izateaz aparte zenbait karroza egin dira, ehiztariena, rock talde batena... Aspaldiko partez oholezko haizturak atera zituzten, hauek luzatu eta bildu egiten dira eta etxeetako lehiotaraino ailegatzen dira.

Zubieta, gero eta alaiagoa

Zubieta, gero eta alaiagoa bihurtzen ari da. Denborada baten nahiko apala egon zen baina azken aldi honetan berpiztu da, haizea berritu izango baitlitzan... Jaietan eta iñauterietan ez ezik, as-
teburuetan ere jende

asko biltzen da gure txoko honetan. Halere, duela urte batzuk eginiko pisuak saltzerik ez dago, etortzen diren bakoitzean etxe ruralan edo ostatutan pasatzen baitituzte egunak. Honetaz aparte zenbat jende etorri da kanpotik hona bizitzera? Kanpotarrei ongietorria emateko udalletxeko paretan Zubietako harmarria jarri dute, dotorea eta burnizkoa.

Iñauteriak

Iñauteriak beti bezain ikusgarriak izan dira, telebistan agertzeko moduan. Aznarrek eta Gonzalezek bisita egin ziguten, baina ikastoletako haurrek ongietorri berezia eman zieten harri kozkorak boteaz. Badi-rudi, Iruñeko PPTik ere protestaren bat ailegatu dela Zubietako Herriko Etxera. Benetan gaiztoak ibili dira haurrak.

Orain herria lasai ederrean dago, hurrena ailegatzeko esperotan. Jadanik martxoaren 9an emakumearen eguna ospatzeko egingo dugun afaria antolatzen hasiak gara, gauzak azken momentura arte utzi gabe.



Jende aunitz izan da aurten bisitan Ituren eta Zubietako iñauterietan. Joaldunen ohiko joan-etorriekin batera, iratze meta ibiltaria ere ikusi genuen, hasieran behinipein, gero iratzerik gabe gelditu baitzen. Mozorro ikaragarriak ere agertu ziren.

Argazkiak: Karmele Tolosa

SASOI Eskabazioak E.M.S.

© 450165 • 908.779366 (Patxi)

© 450286 • 908.165399 (Pello)



MENDIALDE Jatetxea

Etxeko gasnak saltzen ditugu

Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan

AMAIUR • Tfnoa: 45 30 60



Urrotzko inauteriak otsailaren 16tik 18ra

JOSEBA URROTZ

Otsailaren 16, 17 eta 18an Urrotzko inauterak ospatuko dira, bertze urtetan bezaltsuko egitarauarekin.

Ortziral arratsean afaria izanen da Herriko Ostatuan. Larunbatean, egun guztian etxez-etxe puska bilketa eta arratsean bertso afaria Lizaso eta Egaña bertsolariekin. Ondotik dantzaldia izanen da. Igandean, Herriko Ostatuan bazkaria eginez akittuko dira aurtengo inauterak. Soinua, Xabier eta Jonek paratuko dute, *Etzakit* musika taldeko partaideak.

Urrotz, Oitz eta Saldiasko urak kloratzeko dirulaguntza

T.T.

Nafarroako Gobernuak Osasun sailak Nafarroako zenbait herrietako urak kloratzeko dirulaguntza eman zuen joan den urtean. Malerrekan, Oitzko udalak 94.452 pezeta jaso zituen, Saldiaskoak 100.050 pezeta eta Urrotzkoak 178.663 pezeta.

20 bikote Donamariako mus txapelketan

P.F.

Guztira hogeik bikoitek eman dute izena Donamariako ostatuan jokatzeko ari den mus txapelketan. Norgehiagokak urtarilaren 27an hasi ziren eta finaleko eguna ez dago zehaztua oraindik.

Beintza-Labaiengo lur sailen biltzea balio publikoko lana izendatu du Nafarroako Gobernuak

Beintza-Labaiengo lur sailak biltzeko lanak (partzen konzentrazioa) balio publikokoak eta lehenbaitlehen egin beharrekoak izendatu ditu

Nafarroako Gobernuak, Foru dekretu baten bidez.

Lur sailak biltzeko eskaria, herriko 117 lur jabeetatik 77k egina zuten, legeak agintzen

duen guttiengoa gaindituz. Beintza-Labaiengok 2.019 hektarea ditu eta horietatik 839 izanen dira bilduko direnak. Bil du ondoren, 808 hektareatan gelditu



tuko dira lur sailak.

Kontzentratuko diren esplotazioen oinarritzko azalera 23 hektareakoa izanen da gehienez eta 8 hektareakoa guttienez.

**P.A.C.
96**

**CAJA RURAL DE NAVARRAren
"AZALERA ETA AZIENDENDAKO
LAGUNTZA" ZERBITZUA**

LEHEN SEKTOREA LAGUNTZEN ESPEZIALISTAK



"Azalera eta aziendendako Laguntza" zerbitzuari eskusiban emana dagoen espezialista taldeari eta automatizatutako sistemari esker, Caja Rural de Navarra zure eskaera aurkezteko modurik bizkor eta eraginkorrena eskeintzen dizu.

Etor zaitez Caja Ruralera eta laguntzarik onena aurkituko duzu.

1996-1997 Komertzializazio Kanpainarako Azalerengatik Laguntza Eskaria (1996ko uztak), 1996ko azienda sariak eskuratzeko bazkalekuen deklarazioa

eta ardi, ahuntz eta behi haragi produktoreendako eta 1996rako behi amak mantentzen dituztenendako Laguntza Eskaria.



CAJA RURAL DE NAVARRA

LAGUNTZA ESKARIA
ORAIN BAITA **ARDI, BEHI**
AMA ETA ARETZE
LAGUNTZENDAKO ERE

Goizueta

Hilabete honen 17, 18, 19 eta 20an ospatuko dira aurtengo Karnabalak

Berrogeita hamar goizuetarrek osatuko duten konpartsa izango da aurtengo berrikuntza nagusia

ESTEBAN AROZENA

Goizuetako iñauterien data ezaguna zen aspalditik; programa berriz, kaleratu berria da, eta ederki aski osatua gainera, alajaina!

Tarteka ikuskizun berriren bat herritarrei eskeintzea izaten da antolatzaileen helburu, eta aurtengo berrikuntza Izaskun Bake-roren eskutik dator, hain zuzen, emakume honen gidaritzapean 50 goizuetarrek osatuko duten konpartsarekin. Larunbat arratsaldeko 6etatik aurrera ibiliko omen da herrian zehar aipaturiko taldea.

Ohi den bezala, igande gauean elkartuko dira moztorroak



Izkiña tabernan afaltzera. Ez da esan beharrik, noski, ilunabarrean eta gauean dantzaldia izango dela plaza trikitilari ospetsu batzuen eskutik.

Hurrengo bi egune-tan ohiko baserrietako bira eta zagi-dantzatik

aparte, aipatu beharretzera. Ez da esan beharrik, noski, ilunabarrean eta gauean dantzaldia izango dela plaza trikitilari ospetsu batzuen eskutik.

kionean esan, azken hilabete hauetan modan dagoen Xabier Solanoren *Etzakir* taldea edukiko dugula bertan. Ilunabarreko 8etatik 10etara eta gaueko 11,30etatik goizaldera arte joko dute Ereñozukoek.



Karnabaletako gai honekin bukatzeko esan, moztorroen diru eskakizunari baietza eman ziola udalak bere azkeneko osoko bilkuran. Beraz, 130.000 pezeta jasoko dituzte Herriko Etxeko kuxatik.

Areso

Herriko sokatira taldea 640 kiloko kategorian txapeladun

Larrea elkarteak, bestalde, lehen mus txapelketa jokatu da

JUANA M^a SAIZAR

Sokatira taldea txapeladun suertatu zen hilbeltzaren 28an burututako Nafarroako 640 kiloko txapelketaren finalean. Aresoarrek Beti Gaztekoei bi tiraldiak irabazi ondoren lan gogorra egin behar izan zuten Sakana-koei irabazteko, baina azkenean lortu zuten txapela bururatzea.

Mus txapelketa
Lehenbiziko mus



txapelketa antolatu du-te Larrea elkarteak.

Zortzi bikotek parte hartu zuten eta M^a Es-

ther Tolosa eta Manuel Alustiza garaile izan

Larrea elkarteak lehen aldiz egindako txapelketan sarituak suertatu zirenak

Argazkia:
Juana Mari

ziren. Sari banaketa hilbeltzaren 27an izan zen, afari baten ondoren.

140.000 pezeta eskolarentzat

Ingurugiroko proiektuarentzat 140.000 pezeta eman dizkio Nafarroako Gobernua Aresoko eskolari.

Iñauteriak

Iñauteriak otsailaren 10, 11 eta 12an ospatuko dira. Egitarauak ez du aldaketa handirik izango.

Leitza

Ihautetan giro ona eta jendetza haundia izan zen

Astearte gauean, halere, guardiazibilaren eskutik tentsio uneak bizitu ziren

JOSEBA AZPIROZ

Sekula baino jende gehiago izan dugu aurten goiherietan. Mozorrotuta jende asko ibili da. IKAK antolatutako bertso saioak urteroko arrakasta izan du, Jose Mari, Juani eta Xabier txiste kontalariak bere umorea erakutsi zuten berriz ere; Etxakit taldekoak oso trebeak suertatu dira plazako giroa alaitzerakoan; eskelariak eskean, musikoak musika jotzen, dantzariak dantzan... eta guardiazibilak adarra jotzen. Astearte gauaz, herrian bizi den marokoar baten bila zebiltzala eta, tabernaz taberna ibili ziren, paisanoz eta uniformeaz, sekulako tentsio unek sortuz. Bateria pistola ere erori zitzaion taberna barruan. Marokoarra bizi den blokeko etxebizitza guztietan atea jo omen zuten. Azkenik, alkateak sargentoarekin hitzegin eta erretiratu ziren.



Ihauteriak giro lasai, alai eta jatorrean igaro dira, orokorrean

Joseba

ttipi-flash

Kantu txapelketa

izanen da hilaren 17an, arratsaldean, herriko zineman. Euskal Herriko txapelketan parte hartu zuten Xagu eta Xatorrek ere parte hartuko dute.

7,7 milioiko

dirulaguntza eman die Nafarroako Gobernua Leitza eta Larraungo udalei, zaborren bilketaren zerbitzurako pabilioi bat egiteko. Industrialdean egiteko asmoa da eta bere kostoa 16,5 milioikoa da. Enkantean parte hartzeko epea hilaren 15ean bukatuko da.



Eusebio Zestau erremontelariak 41 urtetan adio erran dio pilotari

Eusebio Zestau, Zestau II, atzelari leitzarrek azken erremonte partidua jokatu zuen urtarilaren 27an Hernaniko Galarreta pilotalekuan.

Eusebiok onartu duenez, "pena eman dit erremontea uzteak, ni oso ongi nago baina enpresak gazteen aldeko apostua egin du orain". Zestau II.k 1979ko ekainean jokatu zuen lehen partidua profesionalean, Miguel

bere anaiak baino bederatzi urte beranduago. Geroztik 2.000 partidua inguru jokatu omen ditu, "garai onetan astean hoge partidua jokatzen baintuen" dio Eusebiok. Erremonateak momentu eta lagun onak eman omen dizkio eta etorkizunari begira Zestautarrak frontoietan segituko dutela uste du: "Miguelen semeak hortan ari dira, afizionatu mailan".

BAZAR LA MASCARA



- Inauterietako mozerroetan dena daukagu
- Osagarri mota guzien alokairua eta salmenta
- Festen prestakuntza
- Makilari profesionalak...

Bazar denda: Abejeras 6, Tfnoa: 25 00 04 • Faxe: 25 00 04 • 31007 IRUÑEA

Baztan

Bertso afaria ospatuko da Antxitonean otsailaren 11n

Ikastolak antolatua, Xebastian Lizaso, Mañukorta eta Bittor Elizagoien izanen dira bertso kantari

JOSEBA IGARABIDE

Baztan ikastolak otsailaren 16rako bertso afaria antolatu du. Ekitaldia gaueko 9,30etan hasiko da Antxitonea trinketean eta bertan izanen diren bertsolariak Xebastian Lizaso, Mañukorta eta Bittor Elizagoien izanen dira. Txartelak otsailaren 11 baino lehen hartu behar dira Intza, Mendi, Labaien, Futbolin eta ikastolan bertan edo 452448 telefonora deituz. Txartelaren truke 1.700 pezeta ordaindu behar da.

Moto istripua

Daniel Martin Iglesias, 36 urteko elizondoa, moto istripu batean hil zen urtarilaren 22an goizaldeko 7etan Oronoz eta Arraioz artean zuhaitz baten kontra jo ondorengatik. Hasiera batean, arbola gainera erori zitzaioala erraten bazen ere, Xorroxin irratira egindako dei batean



Orakunde, oilar-dantza, egun-ttuntun... izen ezberdinekin ezagutzen da baztan aldean Ortzegun Gizen eguneko ohitura. Bi larunbat aitzinetik haurrak etxetik etxe eta baserriz baserri ibiltze dira puskak biltzen. Baztango herri gehienetan ospatuko dira ihauteriak

bertsio hori ukatu egin zen. Identifikatu gabeko dei honen arabera arbolak orduak zituenean errepidean eroria eta guardiaziablari emana zitzaion horren abiua.

Basaburuako ihauteriak

Zigan hilaren 9tik 11ra ospatuko dira ihauteriak eta Alman dozen 16tik 18ra.

Almandozen aitzineko asteburuan, o-

tsailaren 10ean, Iñaki Ertze eta M^a Carmen Atxaren ezkontza ospatzeko bazkaria egingen dute mendian, musikaren laguntzaz.

ttipi-flash

Aisialdirako begiraleen

ikastaroa burutuko da laister Iruñean, Urtxintxa elkarterako. Baztan eta Malerrekatik hiru lagun aukeratu dituzte.

Emakume bazkaria Azpilkuetan

Iñauterien barnean, otsailaren 11n Azpilkuetako emakumeen bazkaria egingen da. Iaz bezala, herrian nahiz kanpoan bizi direnei luzatu die deia.

Arizkuneko ur-arazoak

Sardiazpieko inguruan, Sasterneko iratzelekuan ur tuboa itxi zuen zuhaitz zain batek. Ia aste batez urrik gabeko egon ziren Arizkuneko, hilbeltzaren 21etik 26ra.

**MENDI
OSTATUA**

Santiago 25 - ☎ 580313
ELIZONDO

**Eskisaro
jatetxea**

Jaime Urrutia, Tfnoa: 580013
ELIZONDO

KASINO OSTATUA

Iñauteriak ongi pasa

Jaime Urrutia 10
ELIZONDO

Fortenea
OSTATU-JATETXEA

*Baztango gaueko
martxarik jatorrena*

Santiago karrika
ELIZONDO

Oronoz-Mugairiko gazteek Iñauteak ospatu dituzte

Hogeitabortz urtez iñauteak egiten daramatzan
Esteban Araneri plaka bat eman zitzaion lan hori eskertuz

Josu INZIARTE

Oronoz-Mugairiko gazteek iñauteak ospatu dituzte, hilbeltza-
ren 25tik 27ra, iaz bai-
no egun bat gutiago.

Lehenbiziko egu-
nean, baserriz baserri
ibili ziren puskak bil-
tzen, Bixente akordio-
lariarekin. Biharamo-
nean Oronozen ibili zi-
ren eta larunbatean
Mugairi eta Zozaia au-
zoei egokitu zitzairen
txanda. Larunbateko
afaria Gaztelune el-
kartean ospatu zen eta
70 lagun bildu ziren
Pierresenean prestatu-
tako otordua jatera;
Onofreren eskutik soi-
nua izan zen. Aipatu
behar da 25 urtez iñau-
teak egiten daramatzan
Esteban Araneri plaka
bateskaini zitzaiola lan
hori eskertzeko.



Oronoz-Mugairiko gazte koadrila puska biltzen ibili zen Argazkia: Josu I.
Industri barrakoiak Mugairin bi hilabete barru

Hemendik bi hila-
betera Mugairin egi-
ten ari diren industri
barrakoiak akituak izan-
nen dira, urbanizazio
eta guzti. Nahiz eta ha-
sieran arazoak sortu eta

herriko batzarrean e-
txeak egitea erabaki
arren, azkenean, etxe-
ak egiteko legezko ara-
zoak direla eta, barra-
koiak egingen dira. Hiru
barrakoi izanen dira

eraikitzeko, guztira
2.700 m² saltzeko. Es-
paloiak eta lorategi bat
30 arbolekin paratuko
ditu errepide bazterre-
an 'Ciabar' eraikuntza
enpresak.

ttipi-flash

❖ **Baztango Mendigoizale**
taldeak arduradun
berria du, Ixabel
Aleman amaiurta-
rra. Ixabelek Iruri-
tako David Ramos
ordezkaturiko du.

❖ **Arizkongo elizarako**
erlojua erosi eta pa-
ratzeko milioi erdi-
ko dirulaguntza
eman du Balleko
Etxeak. Aurrekontu
osoa 1.010.217 pe-
zetakoa da.

❖ **Arraiozko saihebidia**
egitea balio publi-
koa duen lana izen-
datu du Nafarroako
Gobernuak. Lana
1999a baino lehen
egitea aurrakusi du
Herrilan, Garraio
eta Komunikabi-
deetarako sailak.

❖ **Iruritan**
norbera estimatzen
ikasteko ikastaroa
egin berri da, hama-
bortz emakumeren
partehartzearekin.

LABAIEN ostatua

Bokadilloak, pintxoak eta plater konbinatuak

Santiago 47 - ☎ 580338 • ELIZONDO

KARRIKA OSTATUA

Iñauteriak ongi pasatu!

JAIME URRUTIA 11 • ☎ 581275 • ELIZONDO

CIABAR OBRAS Y CONSTRUCCIONES, S.L.

Santiago 55 - behea
Bulegoa: Tel. eta Faxe (948) 58 04 52
Tel. partikularrak: (948) 58 01 72 - 58 01 34
31700 ELIZONDO

Oronoz-Mugairin nabe industrialen eraikuntza eta salmenta

- ❑ 100 m²tik 500 m² bitarte
- ❑ Solairuartekoa egiteko aukerarekin
- ❑ Lehen mailako nabeak
- ❑ Kokaleku ezin hobea, errepide nagusiaren ondoan

BAZTAN FUNERARIA

EHORZKETA ZERBITZUAK • HILKUTXEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA • TRASLADOAK
Jaime Urrutia 53 • ELIZONDO
Tfnoak: 580373 • (908) 776176



JATETXEA
Tfnoa: 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galarza

Urdazubi

Guardiazibilaren kuartela granadaz erasotu zuten urtarrilaren 27an

Beotxeako kaxkotik egindako atentatuak ia 6 milioi pezetako kalteak eragin ditu teknikoen arabera

ALIZIA OLAIZOLA

Urtarrilaren 27an lau granaden bitartez erasotu zuten Urdazubiko kuartela, guztira 5.945.000 pezetako gastuak sortuz teknikoek adierazi dutenez.

Guztira bederatzi granada botatzeko moduan utzia zituzten jaurtizaileak Beotxeako kaxkoan, kuarteletik 300 metrora, baina arazo mekanikoak medio, bortzek ez zuten eztanda-rik egin. Ordu laurdenero hiruna granada lehertzeko

moduan paratua zuten denbora neurgailua. Lehenbiziko bi granadak goizeko 7,15etan egin zuten eztanda, batek Beotxeako zuhaitz baten kontra eta kuarteleko hesiaren kontra bertzeak. Ordu erdi beranduago bertze bi granadak egin zuten eztanda. Lehenbizikoak kuarteleko etxebizitza batean sartu eta bi armairu eta pareta pasatu ondotik gela batean lehertu zen. Bertzeak guardia zibilaren lau ibilgailuen

kontra jo zuen. Erran bezala, gainerako bortzak jaurtigailuetan gelditu ziren.

Gogoratu behar da, joan den urteko urriaren 27an Dantxarineako kuartelean bonba batek eztanda egin zuela.

Eskuinaldean ageri dira jaurtigailuak eta eztanda egin ez zuten bortz granadak, Urdazubiko kuartelaren aitzinean



Otsailaren 18an hasiko dira iñauteriak, gazteak mozturorik Dantxarinean eskean ibiliko dira. Otsailaren 19 eta 20an koadrilak eskean ibiliko dira auzoetan barna

Zugarramurdi

Hilbeltzeko haizeek kalte aunitz sortu dituzte herrian

Lori-bentako gereziondoa errotoik atera da

MARGARI ETA KORO

Hilbeltza erdiko agunetako haize ika-gagarriek, kalte franko egin dute herrian, teiak lurrera botatzea edo erropa hedatuak airean eramatea ttikienak izan dira; horietatik aparte lezeako bideko harola bat bota du, baita Malastako traktore-

aren etxola ere eta gure haurtzaroko oroipen bat errotoik atera du: Lori-bentako gereziondoa, herriko haurrentzat uda guzietan izan den tentazione haundiena.

Xareta ikastaroa

Ilbeltzaren 23an hasiz eta otsailaren 17ra

arte 22 lagun Xareta ikastaroa hartzen ari dira Saran. Ikastaro hau Sara, Urdazubi eta Zugarramurdi turismoko arloarekin zerikusia dutenei zuzendua da eta, 90 orduz denetara, gure lurraldeko aurrehistoria, geologia, mitologia eta ohiturak ezagutuko dituzte.



Turismoarekin zerikusia dutenei zuzendu zaie Xareta ikastaroa

Sara

'Presoak Euskal Herrira' kanpainaren barneko ekitaldiak

Hurrengo bilkura irekia otsailaren 16an iraganen da Sarako Gaztetxean

MIXEL ETA JACQUELINE

"Presoak Euskal Herrira" kanpainaren karietara, urtarilaren 20an, berrogoi bat la-gun -Sara, Senpere, Bera eta Zugarramurdikoak- bildu ziren gaztetxean. Presoei bu-ruzko elkartasunaren adierazteko erabaki du-te zombait ekitaldiren antolatzea: suziri-riren bo-tatzea, martxoan Larrunera igotzea, in-formazio urratsak...

Hurrengo bilkura irekia otsailaren 16an iraganen da Sarako Gaztetxean arratseko 9etan. Gaur 600 eus-kal preso politiko dau-de Frantzia eta Espai-niaren hatzaparretan eta mugagabeko gose greba bat hasi dute Euskal Herrirat eka-



Edantegiko mus lehiaketak jarraia eman dio txapelketari

riak izaitea eskatuz. Jakin behar da Euro-pako Legebiltzarrak presoen urruntzea kal-tegarritzat jo duela.

Musaz bi hitz

Urtarrilaren 26an bururatu dira Frantzia-

ko mustxapelketari do-azkion kanporaketak Herriko Etxeko edan-tegian. 25 bikotetarik hiruk parte hartuko du-te herrialdeko kan-poraketetan: Jean Marc Aspirot eta Mixel

Etcheverry; Philippe Lasaga eta Jean Fran-çois Iribarren; Jean Marie Pradere eta Kako Goyetche.

Hunen ondotik edantegiko lehiaketa hasi da.

Bertso Eguna otsailaren 11n

Azken alean aipatu ginuen bezala, igande honetan, otsailak 11, bertso saioa izanen da Omordio antzokian arratsaldeko 4etan. Aitor Mendiluze, Jon Enbeita, Fermin Mihura, Jean Pierre Mendiburu, Kexux Arzallus eta Estitxu Arozena arituko dira Mixel Itzaina gai-emailearen erranetara.

Ihauteriak

Aurtengo Ihauteriak otsailaren 17 eta 18an ospatuko dira. Egita-rauan ez da berrikun-tza haundirik izanen, baina hori bai, umore ona ukaitea nahitaez-koa da. Oraindik ez ba-duzue egin, moztorro-ak prestatu!



Ezkontza Erreportaiak, Argazkiak Estudioan eta Etxez etxe, Karnet Argazkiak momentuan Argazki Kamara aukera haundia: Nikon, Pentax, Goko, Kodak, Fuji, QSS Pelikulak; 1/6, kolore eta diapositibak: QSS, Konica, Agfa, Fuji, Ilford... Argazki Erreproduktzioak, Albunak, fotokopiak, Enkuadernazioak, Agirien Plastifikazioa, Fax Zerbitzua, Markoak eta Moldurak

NAGUSIA 4 - TEL-FAX: 45 08 25 31740 DONEZTEBE

SANTIAGO 40 - TEL: 58 01 55 31700 ELIZONDO



ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

Zaldubia Poligonoa • ☎ 580562
IRURITA - BAZTAN

Sukalde eta Bainu Mobleak

Egoki-ren banatzaila
baimendua



M^{te} Dolores Miñana
TOPOGRAFA

NEURKETA • PLANOAK

Lur neurketak, Luberriak
Plantazioak, etab...

Santiago 68, 3. esk. ☎ 580143
ELIZONDO

ERTZILLA

ALBAITARITZA

KONTSULTA

Txakur eta katuendako

ORDUTEGIA

10etatik 1etara eta 4etatik 8etara

Larunbatetan 10etatik 1etara

Santiago 30, ☎ 580627

Laialdiak: ☎ 580762

ELIZONDO

EZKONTZAK

Jesus Etxenike Goñi eta **M^a Esperanza Prieto Irazoki**, Elizondo eta Berakoa, urtarilaren 13an.

JAIO TZAK

Garbiñe Otxoteko Pikabea, Lesakakoa, urtarilaren 15ean.

Leire Matxinena Altzugarai, Urrotzkoa, urtarilaren 18an.

Martin Irigoien Matxiarena, Berakoa, urtarilaren 5ean.

Ane Etxegarai Elgorriaga, Berakoa, urtarilaren 19an.

Julene Ortega Alzuguren, Berakoa, urtarilaren 17an.

Elsa Soubelet, Sarakoa, urtarilaren 24an.

Andoni Larzabal, Sarakoa, urtarilaren 21ean.

Idoia Indaburu, Sarakoa, urtarilaren 19an.

Saioa Alustiza Muniain, Aresokoa, urtarilaren 5ean.

Izar Alguero Txibite, Aresokoa, otsailaren 1ean.

1996an jaiotakoei **TOPELIBRETA** 3.000 pezetarekin eta **TOPEBABERO** polit bat oparitzen diegu. Amendako **"Está creciendo"** liburua daukagu.

IRUÑEKO KUTXA

HERIOTZAK

Trinidad Lopez Heredia, Elizondon, urtarilaren 15ean, 83 urte.

Jose Calasanz Vitoria, Lekarozkoa, urtarilaren 25ean, 75 urte.

Amancio Bergara Barrenetxe, Arizkungoa, urtarilaren 29an, 80 urte.

Miguel Larralde Tapia, Lesakakoa, urtarilaren 17an, 64 urte.

Mercedes Aldazabal Bengoetxea, Lesakakoa, urtarilaren 19an, 89 urte.

Juan Antonio Altzugarai Irisarri, Lesakakoa, urtarilaren 21ean, 90 urte.

Ana Larrondo Fagoaga, Zugarramurdikoa, urtarilaren 19an, 98 urte.

Beñardo Errandonea, Sarakoa, urtarilaren 25ean, 79 urte.

Frantxisku Leizagoien, Sarakoa, urtarilaren 25ean, 74 urte.

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA

Michel eta Kattin
Guerendiain

Tfnoa: 59 54 25 19
64130 SARA



GAZTANDEGIA
Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda
Tfnoa: 45 08 62
SUNBILLA

DONEZTEBE AKADEMIA

Klaseak ematen dira

- OHO, FP, BUP, REM
(maila guztiak)
- Mekanografia

Badakizu honen beharra duzula

Parrokia 10, 3. • 450326
DONEZTEBE

ARROPA DENDA



CERVANTES
HELVETIA SEGUROS



Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia

ERLOJU eta BITXI DENDA



ARRIETA

KIROL TROFEOAK

Tfnoa: 580 445 - ELIZONDO



LARRALDEA



SAGARDOTEGIA

Asteartetik ortzirala betatik aitzinerat
Larunbata eta besta egunetan zabalik.

45 21 21 • LEKAROS

BEHARREZKO TELEFONOAK



SOS Nafarroa eta	
Urgentziak	088/061
Osasun Zentruak	
Elizondo	452367 / 580235
Doneztebe	450300
Lesaka	637428 / 637336
Leitza	510248 / 510573
Nafarroako Ospitaleak	
Nafarroako Ospitalea	102100
SSko Urgentzi	
Zerbitzua	246750
Virgen del Camino	
Erresidencia	109400
Gurutze Gorria	226404
Gipuzkoako Ospitaleak	
Irungo ospitalea	614600
Gipuzkoako ospitalea	460299
Erresidencia	453800
Anbulatorioak	
Irun	630264 / 621106
Anbulantziak	
Oitz	450242 / 450805
DYA	
Lesaka	
(Larrialdiak)	(943) 464622
Doneztebe	
(Larrialdiak)	171717
FUNERARIA	
Doneztebe	450475
Elizondo	580924
Lesaka	637404
Suhiltzaileak	
Oronoz-Mugairi	592255
Garraioak	
Bidasotarra	631150
Baztanesa	580129
Leitzaran	515018
Aberiak	
Iberduero	450335 / 450336

KOLABORAZIOAK

Itoizko obrak geldiaraztea agindu du Entzutegi Nazionalak

Joan den irailaren 29an Entzutegi Nazionalak emandako sententziaren arabera, Itoizko Urtegia legez kanpo dagoela deklaratu zen obra honetan ageri diren planifikazio falta, justifikazio falta eta ingurugiroan izanzen dituen ondorio latzengatik.

Logika eta arrazionaltasun guzietatik kanpo, obrak gelditu beharrean hauen eritimoa nabarmenki azkartu egin da geroztik. Hori ikusita, Auzitegi Gorenak erabakia hartu artio obrak behin behinekoz gelditzea eskatu dio Itoizko Koordinakundeak Entzutegi Nazionalari.

Entzutegi Nazionalak bere Autoan agertu zuenez, Itoizko Urtegia pentsatua den neurrikoa egitea ez da inolara ere bideragarria. Izan ere, Babesgune Naturalaren zainketarako eremua urperatu egiten du, eta Txintxurreneako Harrobia ere legez kanpokoa da zainketa eremu horren ba-

rranean egoteagatik.

Obrak geldiaraztea agintzen du Entzutegi Nazionalak, bertzeak bertze, obrekin segituz gero sortuko diren kalteak, obrak geldiaratean sortuko direnak baita.

Ohartarazten du, baita, obrak aitzinera segitzekotan Administrazioaren ardurapean izanzen dela, eta ingurugiroari eginen zaizkion kalteak eta kalte ekonomikoak arras larriak direla, berez, baliarik ez duen obra delako.

Entzutegi Nazionalak, azken finean, birbaieztatu egiten du Itoizko obrak legez kanpo daudela eta Legea aldatuz ez daitekeela moldatu arazoa, Legea berari iruzurra egitea eta Konstituzioaren kontrako eraso litzatekeelako. Halere, 24.000 milioi pezeta fidantza jarri dio Itoizko Koordinakundeari obrak geldiarazteko. Hau arront ulertzen eta iraingarria da, Entzutegi Nazionalak

emandako Autoak diotenaren kontra jotzeaz gain. Are gehiago, Auto honekin argi gelditzen da espainiar sistema judizialak ez duela balio Ingurugiroa defendatzeko. Nafarroako Gobernuak, Lege iruzurra egiteaz batera, Espezie Naturalen Legea aldatzea onartu berri du Txintxurreneko Babesgunea eta Itoizko Urtegia 'legeztatze'.

EZ GARA ESKUAK SAKELEAN GELDITUKO

Jokabide ulertezin hauen aitzinean, Koordinakundea ez da eskuak gurutzaturik geldituko, eta lehenik, errekurtsioa sartuko du ezarritako fidantza balio gabetzeko eta Europako Giza Eskubideen Epaitegira ere joko dugu. Mobilizazioen artean, otsailaren 17rako manifestazioa deitu du Iruñean 'Itoiz Gelditu' lelopean.

PATXI GORRAIZ
ITOIZKO KOORDINAKUNDEA



Hiritartu ezin daitezkeen lurretan etxebizitzak egiteko baimena

Araitx, Arano, Arantza, Areso, Basaburua, Baztan, Beintza-Labaien, Bera, Bertizarana, Donamaria, Doneztebe, Elgorriaga, Eratsun, Etxalar, Ezkurra, Goizueta, Igantzi, Ituren, Leitza, Lesaka, Oitz, Saldias, Sunbilla, Urdazubi, Urrotz, Zubietta eta Zugarramurdi dira Hiritartu ezin diren lurretan etxebizitzak egiteko baime-na lortu duten Nafarroako 27 udalak.

Baimena lortzeko, halere, frogatu beharra dago etxe horretan titularra bera biziko dela.

Horretaz gainera, etxeak ezin izanzen du hiru solairu baino gehiago izan, eta itxura aldetik, inguruko beste etxeen antzekoa izan beharko du.

FUNERARIA ZERBITZUAK DONEZTEBEN



MALDAERREKA, S.L.

24 orduko zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik
edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

Baztanen...



LOREDENDA • GARDEN CENTER

ESTHER FUNERARIA

Hilkutxak • Hilautoak • Eskelak •
Dokumentazioak
Beztitzeak, etab...

24 orduko zerbitzua

Eta Iruñean...



IRACHE TANATORIOA

Iratxe Monastegia, 60
Tfnoa: 26 09 54

Aritzondo (Bergara auzoan) • Tfnoa: 580971 • **ARIZKUN**
Errepide Nagusia • Tfnoa: 592200 • **NARBARTE**
Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 580668 • **ELIZONDO**

Lesakako Beti Gazte futbol taldea Preferentera bueltatzeko intentzioarekin

✕ Etxean jokatu dituen hamar partiduetatik hamarrak irabazi ditu

✕ Futbol-zelai berria eskatzen ari dira jokalariai liga hasieratik

Lesakako Beti Gazte futbol taldea Gipuzkoako Erregionaleko lehen mailan ari da aurten, joan den urtean Preferentetik jeitsi ondotik. Aurten berriz igotzeko asmo tinkoa dute eta momentuz, bigarren postuan daude, 21 partidu jokatu ondotik 13 irabazi, 2 berdindu eta 6 galdu ditu. 48 gol sartu ditu (kategoria goleatzaileena) eta 26 jaso ditu.

KRISTO-ENEAN

HAMARRETIK

HAMAR IRABAZIAK

Lesakako Kristo-Enean jokaturako partiduetan ez du hutsik egin herriko taldeak, hamarretik hamar irabazi baititu. Kanpoan, ordea, ez dabilta hain ongi Koldo Erkizia entrenatzaileak onartzen duenez: "Etxean hagitz ongi gabilta eta par-



Beti Gazte ongi dabil Lesakako partiduetan, baina kanpoan ez da behar bezala moldatzen

tidu politak egin ditugu, baina kanpoan porrot egiten ari gara, erregularitasun bat ez dugumantentzen". Hor egoten ahal da igotzeko giltza, Erkiziaren ustez: "oraindik gure eskuetan dago baina hobetu beharko dugu eta beti bukaera alde-

ra izaten dugun ratxa on bat hartu".

«FUTBOL ZELAI BERRIA BEHAR DUGU»

Horixe dio denboraldi hasieratik talde nagusiak eta jubenilek etxeko partiduetan plazaratzen duten pankartak. Gai honen inguruan, Erkiziak dioe-

nez, "hainbat bilera egin dira eta oraindik ofiziala ez bada ere, Nafarroako Gobernua 20 milioi emateko prest omen dago, Vicente Ripa kirol zuzendariak honat egindako bisitan hori erran zuen".

Talde nagusiaz gain, jubeniletan bi talde, ka-

dete, infantil, alebin eta benjaminak osatzen dute futbol harrobia. Joan den urtean elkarrearen urteko 7,5 milioi pezetako aurrekontutik 2.255.000 pezetak futbolera bideratuak zeuden eta milioi t'erdi erregionaleko taldeari. ■

«Preferentera igotzeko helburua dugu eta oraindik gure esku dago hori lortzea»

■ Zein helbururekin hasi duzue denboraldia?

□ Hasieran ahalik eta partidu gehien irabaztea eta liga aitzinera doan heinean bertze helburuak paratzen dituzu. Gaur egun igotzeko helburua dugu eta oraindik gure eskuetan dago hori lortzea.

■ Ligan ongi zabilazte. Zertan da horren sekretua?

□ Lehenik entrenamenduetan, astean hi-



Koldo ERKIZIA

Entrenatzailea

zio mailan eta azkenik, taldea osatzen dugun artean dagoen giroan eta errespetuan.

■ Nola definituko zenuke zure taldea?

□ Talde borrokalaria eta esperientziaduna, irabazteko hagitz zaila dena. Arlo fisikoa aunitz lantzen duena eta teknikoki ere, jubeniletatik datozen berriekin, gero eta hobea.

■ Zer nota jartzen diozue egindako lanari?


□ Etxean 7, kanpoan 4 bat bertzerik ez.

Banan Bana

Jokalaria	Postua	Adina
Jon Martinez	Atezaina	25
Mikel Garro	Atezaina	22
Juan Jose Irazoki	Atzelaria	24
Angel Urtxegi	Atzelaria	21
Iñaki Portu	Atzelaria	21
Javier Larrui	Atzelaria	29
Aitor Arozena	Atzelaria	25
Gaizka Sarasola	Atzelaria	21
Iñaki Galarza	Atzelaria	28
Juan Antonio Calleja	Erdilaria	24
Endika Mendegia	Erdilaria	24
Juan Enrique Saralegi	Erdilaria	23
Felix Irazoki	Erdilaria	23
Iban Maia	Erdilaria	19
Jon Apezetxea	Erdilaria	21
Severiano Txoperena	Erdilaria	35
Imanol Iturria	Aurrelaria	21
Iñigo Rodriguez	Aurrelaria	20
Unai Etxepare	Aurrelaria	19
Bixente Lekuona	Aurrelaria	29
David Iturria	Aurrelaria	20

BOTE fronton

- ❖ **Maika Ariztegi**
Gure Txokoa elkar-
teko laisterkalari itu-
rendarra Nafarroako
cross txapelketa ira-
bazi zuen urtarrila-
ren 21ean Tuteran.
Lehendik zeukan
txapela berri du.
- ❖ **Areso 640**
kilotan
txapeldun
Areso nagusitu zen
urtarrilaren 28an
Bidaurretako fron-
toian burututako 640
kiloko sokatira txapel-
ketan. Beti
Gazteri bi tiraldiak
irabazi zieten eta
Sakanakoei uste bai-
no lan gehiagorekin
irabazi ondoren ira-
bazi zuten txapela.
Lesakakoak, berriz,
finalera arte tiraldi-
rik galdu ez bazuten
ere, Aresoarren kon-
trako bi tiraldietaz
gain Sakanakoen
kontrakoak ere gal-
du zituzten eta sail-
kapenean hirugarren
postua bertzerik ezin
izan zuten eskuratu.



Berako VII. mendi bizikleta ibilaldia igande honetan

Bi ibilbide izanen ditu, bata 28 kilometrokoa eta 18koa bertzea

Igande honetan, otsailak 11, Berako Gure Txokoa elkartek, Berako udalaren, Bortzirietako DYaren eta Nafarroako Gobernuaren laguntzaz antolatzen duen mendi bizikleta ibilaldiaren zazpigarren edizioa burutuko da.

Ibilaldia goizeko 10etan hasiko bada ere, izen emateko epea goizeko 8etatik 9,30etara zabalik izanen da Iamotenean. 14 eta 16 urte arteko txirrindulariek 500 pezeta ordaindu beharko dute

eta 16tik goitikoak 1.000 pezeta.

18 ETA 28 KM.KO IBILBIDEAK

Ibilbide laburrak 18 kilometro izanen ditu: Iamoteneatik abiatuz, Sarralla, Zamarrekoborda, Etxeberrikoborda, Benta Elizalde, Benta Gorria eta Usategieta igaroko ditu, hortik herrira jeitsiz. Ibilbide luzea egiten dutenek, berriz, Usategietan jan-edatekoak hartu eta Landagaita, Kondendiaga, Lizuniaga, Tiro zelaia, Idoia eta Ardanbiden barna



pasatuko dira, hortik Berara joanez.

Proba bukatzerakoan, kirol materialen

zozketa egingen da eta bazkalurrekoa banatuko da partehartzai-
leen artean.



Kristina Saralegi leitzarra eta Maika Ariztegi iturendarraren arteko aizkol apostu ikusgarria burutu zen Iturengo inauterietan. Lehenbiziko enborrean leitzarrek hartu zuen aurrea, bigarrenean iturendarrak baina azkenean 12 segunduko aldea atera zion Kristinak Maikari Eusk. Egunkaria

Hamabostaldiko Jokaldiak



Pilotari labealdi berria.

Profesionalerako pausua ematekoprest daude Goñi mugairia-
rra, Apeztegia ituren-
darra, Olaizola I goi-
zuetarra, Almandoz le-
sakarra. Gibeletik in-
darrez datoz Barriola
leitzarra, Errandonea
arantzarra, Olaizola II
goizuetarra...



Koteto Ezkurra

Doneztebeko erremontelaria
Mujikaren omenaldian
bikotearen kontra jo-
katu zuen berak baka-
rrik, baina ez dirudi
honetako partiduetar-
rako prest dagoenik
oraindik. Halere, ko-
munikabideei euska-
raz aritu zen solasean
lehen aldiz. Zorionak.

BERTSO SAIOAK

ARA

Otsailaren 11n

ratsaldeko 4etan
mordian, Aitor
endiluze, Jon
beita, Estitxu
ozena, Jean Pierre
endiburu, Kexux
zallus eta Fermin
ihura. Gai emalea
ixel Itzaina.

KANTALDIK

LIZONDO

Otsailaren 9an

asinon, 'Baila Nelly'
dearen emanaldia.

Otsailaren 23an

asinon, 'Skunk' talde-
aren emanaldia.

ONEZTEBE

Otsailaren 10ean

ueko 10,30etan
aitza tabernan King
afundi.

Otsailaren 11n

ratsaldeko 8etan
aitza Tabernan
argol's eta Skunk.

TXALAR

Otsailaren 9an

ueko 10,30etan
erriko Ostatur Afari
ontzertua Free Spirit
Jazz Band taldearekin.

ESAKA

Otsailaren 16an

ueko 11etan
xaspin Gari.

Otsailaren 18an

ueko 11 eta
xaspin Maixa eta
iar.

ERREZETA



Piperrak onddoz beteak

Osagaiak

6 lagunendako

- 24 pikillo piper • kilo 1 onddo
- tipula 1 • 4 baratxuri ale • pi-
per berde bat • olio • 4 goila-
rakada irin • litro erdi esne •
gatza •

Prestatzeko manera

Kaxula edo zartagi batean olio, tipula xehetua, piper berdea eta baratxuriak egiten jarri. Goxatu

direnean onddo xehetuak bota. Egin direnean, bota irina, esnea eta gatza, eta utzi irakiten besamelak gorputza hartu arte. Behin egina dagoe-
nean bandeja batera atera behar da eta hozten utzi. Hoztu direnean piperrak beteko ditugu bainan besamel guzia enplegatu beharrean, pixka bat gorde eginen dugu gero saltsa egiteko.



Kontxi
ALTZURI MAIZ

Aterpe Jatetxea
•ARANTZA•

Saltsa egiteko pikilloen salda, besamela eta tomate prexitura jarriko dugu kaxula batean eta trituratuko dugu. Saltsa hau piperren gainetik bota, berotu, gatza puntua hartu, eta listo!

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- Zerrikumea (20 kilokoak): 7.300 pzta.
- Zerri gizena (95-100): 170 pzta/kilo
- Zerramak: 120-125 pzta./kilo bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

- Aretze gizenak:
- Idixkoak: Pzta./kg. Kanakal
- Extra 580
- 1.koa 560
- 2.koa 540

- Urruxak: Pzta./kg. Kanakal
- Extra 590
- 1.koa 560
- 2.koa 530
- Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urru-xentzako.
- Aretze ttikiak (15 egun ingurukoak):
- Nabarrak: urruak 22.000 eta idixkoak 27.000 Pzta.
- Mestizoak: urruak 30.000 eta idixkoak 40.000 Pzta.
- Behi zaharrak:
- Behi nabar gizena: 380 Pzta./Kg. Kanakal. Behi gorri ona: 470 Pzta./Kg. Kanakal.

DATU ITURRIAK: EHNE,
ZUBIRIA MINDEGIK...



❖ FRUTONDOAK ❖

- Hiru urteko landare bakoitza
- Bertako sagarrondoa 950.
 - Udareondoa 950 pzta.
 - Gerezi ondora 1.050 pzta.
 - Aranondoa 1.050 pzta.
 - Muxika 880 pzta.
 - Urritza 880 pzta



❖ LANDAREAK ❖

- Porruak zientoa 400.
- Tipulak zientoa 800.



BAZTAN ALTZARIAK zurgindegia

121 errepide nazionala, 54. km

Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

ZONAKO SAGARDOTEGIAK

... eta Lesakan Koxkonta sagardotegia

Koxkonta da eskualdean dugun bigarren sagardotegia. Urte osoan jatetxe modura funtzionatzen duen arren, sagardo denboraldia hasten denean ederki apaindutako sagardotegia idekitzen dute jatetxearen goiko partean.

Josetxo Etxegarai, Koxkontako nagusiak kontatu digunez, Euskal Herrian ez dute nahi zuten sagar guzia lortzerik izan, eta horregatik, Urnietako sagardotegi batekin elkartuta, sagarrak Asturias aldean erosi dituzte kiloa 34 pezeta ordainuz. Gero, Urnietako tolareetan sagardoa egin ondok, zisternan sarturik garraiatu dute Koxkontako kupeletara.

43.000 LITRO SAGARDO

Denboraldi honetarako, Koxkontako kupeletan 43.000 litro sagardo dituzte prestatuak. Maiatza ondar alderako kontsumitu ez dena, botiletan sartzen dute, eta gehiena euren jate-txean kontsumitzen bada ere, kanpora ere saltzen dituzte botil batzuk. Txotxaren prezioa 400 pezetakoa



Joan den urtean 1.500 lagun inguruk probatu zuten Koxkonta sagardotegiko mama goxoa

da, eta menuari dagokionez aukera zabala dute. Bakailu

DATUAK

Non dago:

Lesakako sarreran fabrika aldera eramaten gaituen bidea hartu behar da. Fabrika baino lehen eskuinera. Badaude bide seinaleak.

Telefonoak:

(948) 627503 / 627519

Menua:

Bakailu tortilla edo piper berdeekin, txuleta, saiheskia, gasna, eltzaurrak, menbrilloa...

Otorduaren prezioa:

2.000 - 2.500 Pta.

Idekia dagoen egunak:

Asteazkenetik igandera bitarte

tortilla, bakailu prexitiua piper berdeekin, txuletak eta saiheskiak, arrainak labean erreak, eta postrerako, gasna, menbrilloa eta intxaurrak. Horretaz gain, euren jatetxeko menuan eskaintzen diren bertze edozein arrain eta postre ere eska daiteke. Otordua 2.500 pezeta inguruan ateratzen da, eta badaezpada, hobe da lekua lehenagotik gordetzea.

IAZ 1.500 LAGUN

Joan den urtean 1.500 lagun inguru bertaratu ziren sagardotegira, eta aurren, kopuru hori mantentzea espero dute.

koxkonta



**Sagardotegia
zabalik**

*Deitu
erreserbak
egiteko*

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • **LESAKA**

ETXANDI TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta
gosariak

ITUREN

Tfnoa: 45 04 91

AGENDA EGUNEAN EGUN

ZINEA

DONEZTEBE

► Otsailaren 10-11n zine aretoan 'Nell'.

► Otsailaren 17-18an zine aretoan 'Historias del Bronx'.

MENDI IRTEERAK

ELIZONDO

► Otsailaren 11n Baztango Mendigoi-zaleen irteera Belaguara elurretara.

► Otsailaren 18an Baztango Mendigoi-zaleen ibilaldia: Belate-Irurita.

DONEZTEBE

► Otsailaren 11n Erreka elkarteak Mugairi-Arraiotz-Zigamugairi ibilaldia antolatuko du.

GUARDIAKO BOTIKAK

► Otsailaren 5tik 11ra Etxalar, Ituren, Elizondo (Iturralde) eta Goizueta.

► Otsailaren 12tik 18ra Arantza, NARBART, Elizondo (Lezaun), Urdazubi eta Goizueta.

► Otsailaren 19tik 25era Igantzi, Doneztebe, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizueta.

ETXEBIZITZAK

BERA. Pisua salgai. ☎ 631232 edo 943-397388.

BERA. 95m²ko pisua salgai. Sukalde ekipatua, kalefakzioa eta nahi baldin bada, garagea. ☎ 630686. Arratsaldetan.

ELIZONDO. 250m²ko pisua salgai Santiago karrikako 3. solairu batean. Prezio onean. ☎ 234830 Jose M^a.

Baztan-Malerreka aldean borda bat erosiko nuke, ura, argia eta terreno apur batekin. ☎ 943-835636 (gauze).

ELIZONDO. Pisua alokatuko nuke moblerik gabe. Santiago karrikan. Bista onak. 35.000 pezeta hilabetean. ☎ 451518.

DENETARIK

DONEZTEBE. Goxoki dena alokairuan emanen nuke. 20.000 pezeta hilabetean. ☎ 451518.

Kartelak, buzoiratzeko paperak, bisita txartelak,

Faktura taloiak... egiten ditugu. Merke eta azkar. ☎ 631188.

LESAKA, Bajera bat alokatzen da Albistur karrikan lur azpian. ☎ 637948.

LESAKA. 23 m²ko bajera salgai, Bittiria 37an. ☎ 637938 (Inma).

URNIETA, 8.000 m²ko lur eremua salgai. ☎ 948-510431.

Bi emakume terrenotxo bat erosiko lukete Zubietatik ahalik eta hurbilena. ☎ 451555 (Amaia eta Esther).

Bi ohatzeko gela salgai. Oheak 1,05ekoak dira. ☎ 637162 (eguerditan 1-1,30etara eta 4,30-7etara).

TTIPI-TTAPAREN lehendabiziko 23 aleak eskuratu nahi nituzke. ☎ 635182 (Patxi, eguerditan).

Istripu baten lekukoa behar da lehenbaitlehen. Istripua joan den urteko azaroaren 8an gertatu zen Berako Renaultaren parean, arratsaldeko 4,45etan. NA-3827-AL matrikuladun DAF kamioneta Ford Orion bat aitzintzen hasi eta ez-

ker aldeko aleta kolpatu zion. ☎ 637832 (Txaro).

Kulunkaulkia salgai. ☎ 631183.

IBILGAILUAK

Audi **SAMPI ARAGON**

Bigarren eskuko autoak, furgonetak eta mendiko autoak erosiko nituzke. Eskura ordaintzen da.

☎ 45 03 54 • DONEZTEBE

Honda Dominator 650 ekoa, berria NA-AK salgai. Deitu asteburuetan. ☎ 948-451650

MENDAUR MOTOR

☎ 450333 • DONEZTEBE

Erremolke Isotermoa salgai. 1,5 x 1,4 luze-zabal eta 1,8 altura. **Vitara Diesel** berria. Aukera zabala bigarren eskuko autoetan. Merke.

AZIENDAK

Oilagor ehizirako zakurkumeak salgai. Sei hilabeteak. Setter eta Pointer arrazakoak. ☎ 510249.

Oilagor ehizarako zakurra salgai. Bi urtekoa, Setter

ingeles arrazakoa. ☎ 948-510249.

AGURRAK

Lesakako Amaia E.ri: ez duzu lagunik izanen, Arlaukas. Igantziko mutil batzuen partez.

Leitzako Agurne Oronoz: zutaz gustatzen naiz.

U. Almandoz eta I. Seineri, noiz bukatu behar dituzue zuen arteko 'rolloak'. Asier.

Oronozko Jose Antonio A.M.ri: Aupa!, ez zaude bakarrik, hobe da horrela egoitea ala gaizki akonpañatua. Bazazi urrun, baina eginen duzu bertzeak bezala. Zorionak zertaz zu zara bai mutiko arrunt majoa, sinpatikoa eta oso jatorra. Muxu haundi bat. ?

Berbinzanako Joanari: zorionak zure izeba-osaba eta lehengusu guztien partez.

Iturengo inauterietan joalduen atzean erdi biluzik ibili zen moztroaren berriak jaso nahi genituzke, sekzio honetan bertan. Arrasate familia.

Zigako Fernando Juberari:

oso ona zaude. Ez moztu hainbertze neskekin. Zuk uste ez dituzun neska batzuen partez.

Fabio-Derby: Lapinta eta laniñak inauterietarako ideiak behar ditinagu. Zerbait okurrituz gero, badakin... axkar-axkar adierazi!!

Iturengo moztro eder eta sendoari, oso gorputz polita duela esango nioke, nor den jakingo banu. Irundarra.

Igantziko Yolanda M.ri: utzi erretzetik, arrunt txarra da eta. Zure gelako mutilak.

Urdazubiko Itziar Galarregiri: zorionak zure urtebetetzean. Txapain pittaten esperoan gaude. Zure lagunak.


Iñotitan Ittuno egunean ikusi nuen zulu exhibizionistari: Uau, terrible. Zubieta.

Leitzako Korori: Badakitez dudala ezer egitekorik baina ezagutu dudana neskarik polit eta goxoa zara. Maitemindu baten partez.

BIZKANTXE, S.L.

- ✓ Pisuak, garajeak eta bajera salmenta. **Lesaka** erdi-erdian, plazaren ondoan.
- ✓ Pisuak 85 m²tik goiti, hiru logela, sala, bainua, aseoa eta sukaldea.
- ✓ Kalefakzioa.
- ✓ Terraza jardinarekin.
- ✓ Lehen mailako materialak.

PREZIOA: 17.000.000 pezetatik goiti



Informazioa: ☎ 945-248254 edo 945-252312 edo obran bertan



VITARA DIESEL

ESPERO GENUEN VITARA
ESPERO GENUEN DIESELA

MENDAUR MOTOR • Leitzako Errepidea • ☎ 450333 • DONEZTEBE


ZILO BOLAK EGITEKO PLASTIKOA

[®] **SILOTE**

Plastiko luzaerria belarra bolatan sartzeko

- ▄ Belarra ziloratzeko erabiltzen den plastikoetan liderrak
- ▄ Koloreak: xuria eta beltza. Hiru kapako plastikoa
- ▄ 8 urteko esperientzia
- ▄ Kalidade eta prezio arteko erlazorik hoberena

Ez zaitzatela ziririk sartu imitazioaren batekin
Kontutan hartu zenbat belar kilo arriskatzzen dituzun



AROS - BERRI, S.A.
NEKAZAL TRESNERIA

N-121-B errepidea, 54. km.a • ☎ 581021 • Faxe 452103 • 31730 IRURITA

Eskariak berehala
atenditzen ditugu
Galdetu prezioak
konpromisorik gabe

MEBLES AMETS

mobleak orokorrean

BIDASOA Karrika 45-60 • Tfnoa: 948-630537 • BERA

ESKaintza
BEREZIA



KALIDADEA



EGURREZKO LAMINAK



BURUKO ETZANGARRIA



PREZIOAK

AUKERA



NEURRIRA
EGINDAKO
MOBLEAK

erakusketak
ikusgai

LOGELA MODERNOAK ETA BETIKOAK
EGONGELAK • AULKIAK • SOFAK
SUKALDEAK • BAINUAK • MANPARAK
GAZTE GIROKOAK • KOLTYOIAK